



# Langai

1988ko AZAROA

LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEAK

ZENB. 2

**Batasun Nazionala  
Ponentzia**

**Negoiazio  
Kolektibo**

Zbkia

**ZA  
BAL  
TZEN**

TXT 10002

DOKUMENTAZIO  
ZENTROA

# GUZTIZKO SARRERA

Ondoko lan honi ekiteko funtsezkoa da beronen jitea kokatzea eta, bereziki, testuinguru politiko-ekonomiko oso zehatz eta garrantzitsuan atera litezkeen ondorioak txertatzea.

## **TXOSTENAREN JITEA**

Lehendabizi I.N.ak aurkeztu nahi izan du txosten bat, zeinek, kritika edo ekarpen mota desberdinez at, 89ko urterako negoziaketa kolektiborako taula erreibindikatzaile baten ohizko konkretaketaz gaindi joango diratekeen dokumentaketa, hausnarketa eta baloraketa tresnak sartuko dituen.

Egindako radiografia ekonomikoa, garapen askori atxekirik, langile-klasean eragina duten alderdi ekonomiko orokor zenbaitekiko hurbilpen-bizipena sortertzatzen saiatzen da kidegoarengan, karakterizatzen ditu sistema kapitalistaren eskuhartze-ildoak, beronen kudeatzaile politikoen murruntzak eta, emaitzatzat, bultzatzen dugun proiektu politikoari eta herri-interesei eragindako ondorio larriak. Kidegoaren ekarpenaren –non hezketa ekonomiko-sindikala alderdi baldintzagarria bait da– zailtasunaren jakitun izanik, komenigarri deritzagu ezarritako egoera-ardatz batzuri jarraiki joatea eta aldizka eguneratzen joan “argazki” ekonomikoa Euskal Herriarena Estatu espainiarrarena eta Nazioartekoa, baeneratze, jarraipen eta sakontze sistematizatuagorako. Okerra da, gizartearen aldaketaren bila dabilen sindikatu sozio-politiko baten kidegoaren aurrean, “mikro-gatazka”ra jotzea aurrerapenik izan gabe –hori bai, errealitatearen kontra jo duketen asmo haundirik gabe– hausnarketak, eztabaidak eta maila eta entitate handiagodun mezu politiko-ekonomikoak eratzekoan.

Atal honen osagarri bezala, L. M.ari buruzko analisi-lan bat egin da, beronek, trinkoa eta atzerantz begirakoa izan arren, langileriaren gaur egungo erantzun-maila eta ideologizazioan eraginkor eta baldintzagarri diren egitura-alderdiei ekiten diela; lanau, nahiz eta L.M.-aren oraingo status-a karakterizatzen duten ardatzik esanguratsuen eta garrantzitsuenak eduki, zabalik dago balorazio espezifikoak, sakonketak, zuzenketak, kritikak eta beste jasotzeko, beharrezko izanik ezen LABek eta ENAMek orokorki, euskal prozesu iraultzailearen garapenarekiko bitarteko zuzentzaileak eta neurriak artikulatzea ahalbide dezakeen L.M.aren balorazio-DIAGNOSTIKOA ezar dezaten; filosofia honexekin egin bait da lana, atal bakoitzaren ondorioetan eta azkeneko laburpenean, adierazten den bezala.

Azkenik, txosteneko hirugarren blokeak 89ko negoziaketa kolektiboari ekiten dio, interpretazio ezberdinak izan ditzaketen alderdi batzuren homogenotzetik abiatuz: negoziaketa-markoak, negoziaketaren helburuak...; aurkezturiko taula erreibindikatzailea orientabidezkoa da eta, jakina, eztabaidan ekarpenetarako eta garatua izateko zabalik, beti ere B.N.ean, geroago errealitate sektorial edo enpresa konkretu bakoitzari moldatu behar zaizkion oinarri orokorrak, zehazteko xedez.

## **TESTUINGURU POLITIKO-EKONOMIKOA**

Testuinguru politiko-ekonomikoa elementu biren eraginpean dago, berauek nahitanahiez baloratu behar dira hurrengo hileetan, B.N.aren hausnarketetatik abiatuz, sindikatuaren eskuharmenaren karakterizazio zuzenerako.

Batetik, PSOEn gobernua, erabat lerrokaturik kapital multinazionalaren interesekin, CEE delakoaren jarraibideekin eta espainiar ugazaberiaren komenientzekin, langileriarekiko SAKADA areagotzen ari da neurri sozio-ekonomiko gogor eta kualitatiboki oso negatiboen bidez, alogerak mantsotzeko politikaz, kapital multinazionalarekiko jarreraz –Estatuaren ekonomia “saltzen” ari dira,

enpleguan eta menpekotasun ekonomikoan duen ondorioarekin-, sistema kapitalistak bere "maki-na" esplotatzailetik OHILDU eta BAZTERTZEN dituen gizarte-sektoreekiko politika sozial murriztai-lez, Gizarte-Segurantza bezalako langileen lorpen progresistari sabotaia eginez edo eraitsiz, "pirañ-a" pribatuen -banka eta aseguru etxeak- onurarako eta eragin handiarekin urgazpen alderdietan, pentsioetan..., gehi beste neurri batzu, epe erlatiboki laburrerako agerian jartzen ari direnak -lan-merkatua malgutzea, berregituraketa fiskala...- eta berregituraketa edo moldapen produktibo ez beteak, EEEen sartzeak ekarri dituen ondorio hondagarrien aurrean, guzti honek osatzen du EUSKAL LANGILERIAREN AURKAKO NEURRI HAUNDIDUN ERASOALDIA.

Neurrien jitea -argi eta garbi langileen aurkakoa- eta PSO Eko gobernuak haiek apaintzeko erabiltzen duen harrokeria intoxikatzaile eta hutsalerazlea -zera autonomikoak "oilategiko pikondo-ko" ikusleak dira- arazoak sortzen ari zaizkio erreformismo sindikalari, zeinek, plegatze eta "onar-tzeko" maila izugarria izanarren -hala erakusten bait digu langileen aurkako hitzarmen ea akordioe-terako urtetako historiak- bere burua EZINDURIK ikusten bait du ejekutibo sozialistaren eta botere ekonomikoen halako iharduera-dinamika beste ezer leungarririk gabe irentsi edo zilegitzeko. PSOE-UGT aurkaketa edo "tentsio"ak, eta CCOO-UGTren "ihardun-batasuna"k, zein Gobernuaren kon-trako dinamika kritikoaren barruan dagoen eta halaber mobilizatze edo erantzun sozialerako bideak ere, nahiz eta borroka garrantzitsu baterako benetako proiektiorik gabeko "lore jokoak" isan ahal izanik orientatzen dituen, sortzen dituzte gizartean eta langileria artean LABek hedatu, karakterizatu eta Euskal Herriaren egoera konkretuari egoki erazi behar dituen sentiberatasun-baldintzak.

Hau da, LABek behar du bere baitaratu eta sakondu lan ideologikoan, zein PSO Eren neurriak xehetu eta baloratzetik hasiz, eta, jakina, sindikalismo erreformistaren jarrera eta jarraipidean eragi-nez, izan daitezkeen erantzunetaranzko klima soziala sortzen doakeen, zeregin hau inola ere utzi gabe "langile txintxo" mezuaz finkatzen saiatzen den inongo erreformismo sindikali, sistemaren joko-arauetan harrapaturik egon eta daudenean, langileentzat denok ezagutzen ditugun ondorioe-kin. Eritzi-hedapen hau gobernuaren neurriekiko ikuspegiarekin, eta negoziaketa kolektibo batez, non soldatari dagokiona, pentsio-fondoak... borroka-faktore bihur bait daitezke ugazaberiaren ja-rreara gogorragatik, osaturik, indarrez ahalegindu behar da erantzun edo mobilizazio orokorra -gaur egun oso heldugabea eta susmatzen ere gaitz- bilatzen, eta berau ere, noski, erreformismo sindika-la bera ere nola mugitzen delakoaren menpe egongo da ere; baina, berriz diogu, LABek areagotu egin behar du bere ahalegina sentiberatasun soziala pizten, halaber borroka erreibindikatzailean, Gobernuaren neurriak politikoki desgastatzen... noiz eta, hain zuzen ere, ugazaberia eta PSO Eren erasoaldia oso gogor eta aurrez aurre azaltzen bait da.

LABen eskuhartze-ildo hau ere, borroka ideologikora ekartzeko gehigarritzko zereginekin, propagandarekin... eta negoziaketa kolektiboan bertan, iraun erazirik dago hauteskunde-orizesu baten hurbilean -europar parlamenturako-. Erantzun, desgaste... giro ahalbait handiena sortarazi behar dugu PSOE eta sistemarekiko, ENAMen alternatibak gero eta argitasun handiagoa izan dezan eta gizartearen sektore gehiagorentzak erreferentzi buru bihur dadin. LAB ENAMen estrategian txer-tatzea eta geure hedapena L.M.an elkartasun ezinhobean daude, hurrengo hileetan agitazio, sentsi-bilizatze... lan handia garatzeko L.M.aren baitan, sistema eta beronen tutoreengan ahal denik eta desgasterik handiena eragitea duela halburu eta ardatz.

Testuinguru honetan, bada, kokatzen dugu txostena eta batez ere Negoziaketa Kolektiboa, zein PSO Eren eta Ugazaberiaren neurri gogor eta garrantzitsuz inguraturik egongo den.

# 1. EKONOMIAREN EGOERA

## 1.1. NAZIOARTEKOA

### 1.1.A. INPERIALISMOAREN BEREIZGARRIAK 80.EKOETAN

- \* Kapitalismoaren azken fasean gaude, inperialismoan, hurrengoak izanik horren ezaugarriak: monopolioen meneramena, kapital finantziarioaren erasokorkeria, hustiapenaren areagotzea, zapalketa eta joera erreazionario hazkorrak.
- \* Alabaina, bai beraren oinarri ekonomikoek eta bai gainegitura politiko eta ideologikoak, aldaketak izan dituzte azken hamarkadotan.
- \* Produkzioaren kontzentrazioak nazioarteko kapitalaren garakuntza ekarri du. Estatu arteko mugek gero eta areago galtzen dute zentzua. Zentru inperialistetako kapitalek, AEBetakoek batik bat, etengabeko arriskuan uzten dute herrien burujabetasuna.
- \* Gero eta handiago da konplexu militar-industrialen boterea finantzial oligarkia deritzon horren barruan.
- \* Ekonomiaren egoerak agirian uzten du sistemak ekoiztindarren garapena kontrolatzeko duen ezintasuna: egiturazko krisia 70.ekoan hasieratik, langabezi zabal eta hazkorra, inflazio ekintzorra, defizit publiko itzelak, barne eta kanpo-zordunketa hazkorra.
- \* Taigabeko krisiak eragotzi egiten du langileen benetako sarrerak eta monopolio handien etekinak elkarrekin ezkongarriak izatea.
- \* Era berean, elkarrekin buztartezinak dira harmagintza-leihak sorrarazitako gastuei eustea eta gizarte-premiak asetzea. "Welfare State" hura hil hurren dago.
- \* "Inflazioaren aurkako burruka" kontzeptuaren azpian langileriaren aurkako kontraeraso basatia ezkutatu gura da. Guztiontzako dioen kontsigna, aldiz, baztertu egin du ezkerak, eskuinak uko egiten dion aldi berean.
- \* Kapitalismo zantar eta ustelduaren adierazpenik izugarriena militarakeria da, harmagintza-leiharen ondorioa dena.
- \* Egun, hurrengoak dira Inperialismoaren etsaiak: Sozialismoa, nazio-askapen mugimenduak eta nazioarteko langile-mogimendua.
- \* Ekonomia kapitalistan nazioartekoak dira nagusi. Hamaikamila transnazionalak 80.000 sukurtsal ditu mundu zabalean. 50 korporazio handienetarik 22 iparramerikarrak dira. Nazioartekoei dago-kie kapitalismoko industri-ekoizpenen 33a, kanpo-merkataritzaren 50a eta patente berrietako 80a. Nazioarteko kapitalaren aurkako borroka lehentasundun helburu bihurtzen da.

### 1.1.B. NAZIARTEKO EKONOMIA-EGOERA

Sistema kapitalistaren egoera orokoraren testinguruaren sartuta, kontutan hartzekoa da sistemaren alde monetario-finantziarioa eta "benetako aurpegia" deritzonaren arteko erlazioa, ezen horrexek ulertaraz bait dezake gaur egungo eta etorkizuneko egoeraren alderen bat, gutxienez.

Dagoena da baten batzuk "kapitalismo eta diruaren gehioparotasuna" deritzotena. Kapitalen larregizko ugaritasuna zeri zor zaion, bada, euren jabeek eskatzen duten batz besteko irabaziak lortzeko inbertsio-alderik aurkitzen ez duten irabazien pilaketari zor zaio. Zer dela eta den hori horrela, egungo krisian "ekoizpen-gaitasun zabalegia" dagoelako da, esan nahi bait da ezin "ezar" daitekela "balizko" ekoizpen guztia baldintza ezinobereetan, pentsakera kapitalistaren arabera ezarri ere. Horrek dakarrena da kapital dirutza itzelakez bideratzea inbertsio "ekoizgarrira" (makineria, instalakuntzak...), espekulaziora baino, burtsako espekulaziora gehien bat, "lanbidez" espekulatzailak direnak ezezik nazioarteko enpresek ere eskuhartzen dutelarik horretan, japoniarrek batik bat.

Produkzioaren arloaren benetako egoerari ez dagokion bortsas-espekulazioak, goiz nahiz berandu, "crasha" eragiten du Bortsan. Halaxe gertatu zen 1929an eta halaxe errepikatu zen 1987ko Urrian. Dirugehikinak, oraingoan ere, A.E.B. en kanpo defizitean izan du jatorria. Crash honen ondoria izan da sistema finantziario kapitalistaren buztinezko oinak agirian uztea (bere sinesgarritasunaren zati handia galdu du). Bestalde, mundu mailan puntakoak diren enpresek izan duten akzio-balioen galera, pilotutako ondasunen "balioa" urritzearen ondorioz, kontsumorako ondasunen eskarian eragin ezkorra izanik, ekoizpen eta lanari ere era ezkorren eraginez urriketak horrek. Baliteke crasharen ondorioek epe ertainaren barruan baino ez erakustea beren benetako neurria.

Kontutan hartzeko beste alde bat da yankeear ekonomi-hegemoniaren beherakada, Japoi eta Asiar Hegoekialdearen mesedetan. 1950ean haren B.P.G. kapitalistaren ia 50aren ingurukoa zen bitartean, 31a baino ez da egun, Japoiarena, 1.9a izatetik 11ara igaro delarik.

### HERRI EZ-KOMUNISTETAKO BPG-AREN ZENBATEKOA PRODUKTU OSOAREKIKO

HERRIA	1950	1960	1970	1980	1986
Herri Garatuak	80,0	83,6	84,5	80,2	78,5
Estatu Batuak	47,5	44,8	39,3	30,2	31,5
Europa	25,0	28,9	31,1	33,8	30,5
Japoi	1,9	3,8	8,1	9,9	11,1
Besterik	5,5	6,1	6,0	6,3	5,8
Garabidean diren herriak	20,0	16,4	15,5	19,8	21,5
HHEEko Herriak	—	4,1	4,1	7,5	7,8
Besterik	—	12,3	11,4	12,3	13,7
Guztira:	100	100	100	100	100

**Iturria:** OCDE, Economic Outlook, 1986 abendua  
ONU, Statistical Yearbook, 1986

Mundu-ekonomiaren testuiguruan nazioarteko enpresek duten garrantzi gero eta handiagoa, merkantzi-garraioaren merketzeak eta, ondorioz, koste bateratuen murrizketak egin dute posible. Beherakada honek eragin du enpresek aldatzea beren kokagune fisikioarekiko estrategia konbentzionala, estatueta mugetzeko paso eginda.

#### 1.1.C. 1987KO DATUAK. ITXAROBIDEAK

1987an mundu-ekonomiaren (kapitalistaren) hazkundera 3aren ingurukoa izan zen, 1986ko 3,2aren behetikoa, beraz, sistemak bere egiturazko krisia gainditzeko dituen zailtasunen lekuko. Japoi hazkundera sendoari eusten dio, AEBek 3aren inguruan egonkortu direla ematen duten bitartean. EEEk ez du lortzen orain dela hamar urteko tasak berreskuratzea, Erresuma Batuak eta Italiak gailendurik, batzbestekoaren gainetiko tasekin.

Europako Bloke Sozialistako Herriek 4,1ko hazkundera izan dute, eta 7koa Txinak.

Herri kapitalisten kasuan, hazkunde-tasa geldo hauek ez dute ahalbidetzen egiturazko krisialdiaren hasiera unetik, 70. eta 70. hasieran, ordurik honantz galdutako lana berreskuratzea.

Sintesian, hazkuntzari buruzko datuak hurrengo laukian laburtzen dira:

## 1. Laukia Barne Produktuaren Aldakuntza % an

Aldea	%OCDE Batazba.							
	1982	1974-82	1983	1984	1985	1986	1987*	1988**
Estatu Batuak .....	40,6	1,6	3,6	6,8	3,0	2,9	2,9	2,8
Japoi .....	13,9	3,7	3,2	5,1	4,9	2,4	4,2	4,3
Alemania .....	8,4	1,7	1,9	3,3	2,0	2,5	1,7	2,3
Frantzia .....	7,1	2,5	0,7	1,4	1,7	2,1	1,9	2,0
Erresuma Batua .....	6,2	0,7	3,3	2,6	3,6	3,3	4,5	3,3
Italia .....	5,2	2,3	1,0	3,2	2,9	2,9	3,1	2,3
Kanada .....	3,9	3,0	3,2	6,3	4,3	3,3	3,9	4,0
Guztira 7 herriek .....	85,2	2,0	2,9	5,2	3,2	2,8	3,1	3,0
EEE .....	33,8	1,8	1,6	2,6	2,4	2,6	2,5	2,5
Guztira OCDEk .....	100,0	2,0	2,7	4,9	3,2	2,8	3,1	3,0

\*Aurrerapena.

\*\*Aurreikuspena.

Iturria: OCDE Economia Outlook. 1988ko Ekaina.

Gutzizko eskarriak osatzen du erresuma kapitalistetan BPG bultzatzen duen funtsezko osagarria. 1977an eskariak 3aren erritmoan hazi zen. Kanadak, Erresuma Batuak, Italiak eta, batez ere, Japoi, hazkunde tasarik handienak izan zuten, Alemaniak, AEBek eta Frantziak eskariaren hazkunde-tasa ahulenak izan zituzten bitartean 1988rako hazkunde tasaren murrizketa itxaroten da, oro har, eta batez ere AEBetan, Italian eta Frantzian. Crasharen "patrimonio" ondorioa funtzionatzen hasi da, bestelako zioekin batera. Nabaria denez, geldotze honek eragina izango du BPGaren hazkunde tasan ere.

Kanpo-merkataritzari dagokionez, AEB, Erresuma Batua eta Kanadaren defizitak (150, 10 eta 9 mila miloi dolarrekoa) besteen artean gailentzen dira. Erresuma garatuen multzoa, gainerakoen aurrean (garabidekoak, Bloke Sozilatukoak...) defizitarioa da. Horrek erakusten diguna da erresuma garatuen menpekotasun gero eta larriagoa. Aurrearretaturiko debaluapen hutsek ez dute zuzentzen egoera. Denborearen garrenean urtzen amaitzen dira, prezio-gorakada eran.

Enpleguari dagokionez, langabezi-mailan beherakada nabaritu da, oro har, europar erresumetan ezik, azkenotan egonkortu egin bait da langabezia, hurrengo garaian desenplegu-mailetan beherakadarik gertatzeko biderik ikusi gabe aitzitik.

## 6. Laukia Langabezi Tasa (Biztanlego aktiboaren gaineko % an)

Aldea	1983	1984	1985	1986	1986		
					(m langab.)	1987*	1988**
Estatu Batuak	9,6	7,5	7,2	7,0	8.243	6,2	5,5
Japoi .....	2,7	2,7	2,6	2,8	1.670	2,8	2,5
Alemania .....	8,2	8,2	8,3	8,0	2.228	7,9	8,0
Frantzia .....	8,4	10,0	10,2	10,5	2.508	10,6	10,7
Erresuma Batua	11,6	11,5	11,7	11,8	3.281	10,4	9,5
Italia .....	9,8	9,8	9,6	10,3	2.611	11,0	11,5
Kanada .....	11,9	11,3	10,5	9,6	1.236	8,9	7,5
Guztira 7 herri.	8,2	7,5	7,4	7,4	21.777	7,0	6,5
EEE .....	10,7	11,2	11,4	11,3	15.894	11,0	10,7
Guztira OCDE	8,8	8,5	8,4	8,3	31.009	7,9	7,5

\*Estimazioa.

\*\*Aurrikuspena.

Iturria: OCDE Ekonomik Outlook. 1988ko Ekaina.

## 1.2. ESPAINIAR ESTATUA

1985an, gaur egunerarte irauten duen errekupeazio prozesua hasi zuen Espainiar Estatuko ekonomiak, gailentzen direlarik, lehenik eta behin, inflazioa oztapatzeko ahaleginak, aloger eta enpleguan ondoriozko eragin ezkorrekin; bigarrenik, eskariaren papera hazkundearen motore gisa eta, hirugarrenik, kanpo-merkataritzaren eragin negatiboa.

### 1.2.A. OSAGARRI MAKROEKONOMIKOAK

\* **BILAKAERA.** 1987ko BPGaren hazkundera eskaera osatzen duten guztien hazkuntzari zor izan zaio. Inportazioen larregizko hazkunde tasa, kontu korrenteko balantzako (merkakariak, zerbitzuak eta besteganaketak) defizitaren ondorioa izan dena, horixe da eskaintzaren hedakuntza-gaitasuna oztapatzen ari dena (kontsumoa gehi esportazio-osakuntza gordina).

#### 11. Laukia *Produktua eta debe eskaria-eskaintzaren osagarrien bilakaera (%an)*

Kontzeptua	1985	1986	1987
Nazio-kontsumo pribatua .....	2,2	3,7	5,5
Kontsumo publikoa .....	4,6	5,1	9,0
Kapital finkoaren osakuntza gordina .....	3,8	9,6	14,5
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa .....	2,7	1,0	6,5
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa .....	6,2	15,4	22,5
Bane-produktu gordina merkatuko prezioetan .....	2,3	3,3	5,2
Nekazal eta arantza arloak .....	2,4	-11,0	9,5
Industri arloa .....	2,1	5,2	5,7
Industria etxegintza ezik .....	2,1	5,0	4,5
Etxegintza .....	2,2	5,9	10,0
Zerbitzuak .....	2,4	3,7	4,5

Iturria: Estatistiketarako Nazio Institutua.

Hedakuntzak produkzio-adar guztiei eragin die, lehen sektorean (nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza) eta eraikuntzan hazkuntza tasa sendoa nabermentzen delarik.

1987an BPGak 5,2aren mailara heldu zen, 1986ko 8,8aren aldean. 1988aren barruan BPGk nahikoa gaintu du aurrejarritako 3aren gaineko langa, Gobernu Zentrala 5ara igotzera behartuz. PSOEk soldate-tarako bitarteko murriztatzaileen mehatxua egiten du, BPGk ez diezaion 5ari gainez egin ez eta 1989rako gura den 3ari. Orain duela hamabost urte baino lehenago, egiturazko krisialdia hasi zenetik, aldatu egin da politika sozio-ekonomikoaren helburua. Dagoeneko ez da erabateko enplegua, keynesiar teknikeen tema. Monetarismoan oinarritzen da politika sozio-ekonomikoa, zeinek, inflazioari eustearen aitzakiz, langilego osoari egiten zaion erasoa eskutatzen duen. Soldatak izanik kostoen osagarri nagusiak eta, ondorioz, prezioen ere, inflazioari eusteak diruzko soldatei eustea eta euron erosketa-gaitasuna (benetako soldata) murriztea esan nahi du. Berau da monetarismoaren ondorioetarik dramatikoenetariko bat. Politika hori berri da erdigune inperialistako oinarria eta, hala edo hola, bloke kapitalista osoan jarraitutakoa.

Bestalde, IPC delakoak ez du prezioen benetako bilakaera isladatzen. Inflazio subiazentea delakoa ere dago, prezio guztiek, janariarenak eta energiarenak ezik, osatua. Azken hau 5-6a artean egonkortuta dago eta berorren inguran bilakatzera jotzen dute prezioek. Guzti horrek, IPC delakoaren elaborapen estatistikoan egiten diren eskuztaketei gehituta (sekretupean gordetzen du Gobernuak horretan erabiltzen duen teknika), langileentzat fidagarri ez izatea eragiten dute. Asmo politikoan arabera eskuztatzen da IPCa, ezin argiago Estatuko langile multzo guztientzat erasokorra den politika sozio-ekonomikoaren onurak berrestearren itxurazko emaitzen bidez.

\* **LANA ETA ENPLEGUA.** Jarraian aurkezten ditugun datuek 334.000 lanposturen sorrera isladatzen dute. Alabaina, zifrak benetako terminoetan neurtzean, kontutan hartzeko da sortutako lanpostu gehienak enplegua sustatzeko egitasmoen barruan sortuak direla eta, beraz, aldi baterako kontratuak direla gehienak. Alde kualitatiboa dago kontratazio finkoa eta aldi baterakoaren artean. Benetako okupazioaren maila neurtzean ezin dira moeta biak molde berean neurtu. Horri gehitu beharrekoak lirateke enplegu gabeko langile ez erregistratuak eta PSOEn gobernauk erabiltzen dituen era guztietako pikarokeriak, dagoen langabezi dramatikoa ahalbait leuntzearen erabiliak.

### 13. Laukia Biztanlego aktiboaren bilakaera (1), (m pertsona/urterok hatazbestekoala)

Kontzeptua	1987	Aldakuntza absolutuak		
		1985	1986	1987
Landunak .....	11.421,0	-96,3	240,7	340,1
Nekazaritza .....	1.728,1	-40,6	-191,4	-55,3
Industria .....	2.761,5	-93,1	44,3	66,1
Etxagintza .....	931,1	-40,2	58,8	83,0
Zerbitzuak .....	6.000,3	77,6	329,0	246,3
Langabetuak .....	2.937,7	201,1	-10,0	-4,4
Lehen enplega bila .....	1.580,6	118,9	9,3	-22,2
Aurrerago enpleguak .....	1.357,1	82,2	-19,3	17,8
Nekazaritza .....	260,0	33,5	14,5	-0,6
Industria .....	291,4	16,7	19,1	-12,5
Etxegintza .....	253,7	-23,2	-34,6	-22,7
Zerbitzuak .....	570,0	55,2	19,9	53,6
Biztanlego aktiboa .....	14.358,7	104,8	230,7	335,7

(1) INEk berrikustaturiko sailen arabera.

Iturria: INE. Biztanlego Aktiboaz Inkesta.

#### 1.2.B. AURREKONTU POLITIKA

Zeregin lehorra izaten da beti ere aurrekontuen azterketa. Alabaina, geureganatu egin beharra daukagu, estaldurarik gabeko taldeentzat duten garrantzia emanez euroi. 1987ko Azaroko gure Iraultzen-en 1988erako aurrekontuak xehetasunez aztertzen genituen.

\* FIRPF delakoaren 80 soldaten bidezko errentei badagokie eta BEZa zeharkako zerga baldin bada, azken batean kontsumitzaileek ordaintzen bait dute, espainiar zerga-sistema, gizarte ikuspegitik, atzerakoia dela ondorioztatzen da. 1988ko aldaketek IRPFan, urtean 9 milioitik gorako errentak hartzen dituztenei egin zioten zioten mesede, egin ere. 1988ko amaiera alderako aurreikusita dago 500.000 milioiko gehibilketa. 1989erako 0 zergapenera makurtu beharreko zatia 618.000 pezetetara hedatzen da. Semealabengatik dedukzioa 30 urtetik beheragokoengana hedatzen da. IRPFaren kuadroa eta dedukzio-sistemaren laburpena eransten ditugu. Ekonomia eta Ogasun Ministeritzaren usten, 1978ko zergabide erreformatik honantz izan diren aurrekonturik egonkorrenak dira. Gobernuaren filosofia oraingo zergabide sistema ez aldatzea dela esan nahi du honek, argiro.

\* 1989rako aurrekontuko-gastuek 12,7ko igoera izan zuten, 16 biloiak gaudituz. Aurreragoko urteetako filosofia berberari jarraitzen zaizkion aurrekontuak dira: zentralista, ekimen pribatuaren sariztatzailea, gastu korronteak 74tik 86,4era igotzen ditu, ekonomi-hazkuntza sustatzen duten benetako inbertsioen aurka. Desenplegu subsidioetarako 1,1 biloi luzatzen zaizkio INEMeri (hiru miloi langabementzat!). Kontutan izanik azpiegitura eta zerbitzu publikoak hobetzera jotzen duela estatuaren inbertsio-politikak, hirugarren sektorea indartzen jarraitzen da, ondoriozko ahultzearekin industria-sektorean.

Segurantza Sozialaren bidez pentsioetako gastuak 11,4ra igotzen dira 1989rako, honek dakarrena izanik 5,35aren inguruko igoera 6,7 miloi pentsiodunentzat. Aurrearretaturiko inflazioa 5aren ingurukoa izango denez, pentsiodunen erosketagaitasunak ez du egungo egoera tristetik alde egingo.

#### 1.2.C. PAGAMENDU-BALANTZA

EEEetan sartzea bere ondorio ezkorrak izaten hasi da, merkantzi-mugimenduari dagokionean (merkatal balantza), zeina -876 mila milioko defizitatik -1.607ko defizitira igorua den, Esportazioen beharakada eta inportazioen gorakada ikusgarriaren ondorioz, azken hori europar marko-merkatura apur-apurkako hurbiltze geldoaren ondorioa izanik. Bestalde, -202 mila milioiko kapitaletik +1.242ko sarrerara igarotzen da. Basa-ugalpen hau atzerritar inbertsioari zor zaio, zeina espekulatzaila den gehien bat. Atzerritar kapitalaren sarketa hau, mesedegarria izatetik hurrun, Estatuto ekonomia hipotekatzea da.

16. **Laukia** *Ordainketa balantza* (mM pztetan)

Kontzeptua	1985	1986	1987
Merkatal balantza .....	-712	-876	-1.607
Zerbitzu balantza .....	992	1.297	1.307
Besteganaketa balantza .....	187	153	323
Kontu korrontezko balantza .....	467	574	23
Epe luzerako kapitala .....	-254	-202	1.142
Pribatua .....	-248	94	1.195
Publikoa .....	-6	-296	-52
Epe laburrerako kapitala .....	20	-25	93
Partida ez sailkatuak eta bestelakoak .....	-259	-78	-180
Mailegu-sistemako beste eragiketarik .....	66	-387	-1.237
Espainako Bankua .....	371	-319	-1.572
Ordezko Entitateak .....	-305	-68	336

Iturria: Espainako Bankua.

**ATZERRITAR INBERTSIOAK  
ERAKARMEN**

Komunitate	Urtarrila/Maiatza 1988	%
Andalucia	16.233,43	5,680
Baleares	4.877,66	1,707
Cast.-Mancha	988,31	0,346
Varias	40.007,25	13,998
Galicia	1.434,37	0,502
Euskadi	2.434,64	0,852
Cast.-León	1.317,10	0,461
Madrid	138.960,27	48,620
Navarra	2.251,04	0,788
Asturias	610,92	0,214
La Rioja	1.316,27	0,461
Cantabria	1.347,92	0,472
Murcia	430,37	0,151
Valencia	6.115,02	2,140
Canarias	4.586,34	1,605
Extremadura	258,78	0,091
Cataluña	56.286,96	19,694
Aragón	6.354,73	2,223
<b>Guztira</b>	<b>285.811,38</b>	<b>100,005</b>

Iturria: Transacciones Exteriores.

(1988ko lehen bost hilabeteak). (pzt./miloietan).

Hego Euskal Herrian egiten diren atzerritar inbertsioekikoan, azpimarratu egiten da Nafarroak berak ia Vascongakdek beste hartzen duela. Atzerritar kapitalaren erakarmen unerik nagusiak Madrid, Catalunya eta Andaluzia dira. Atzerritar kapitalen sarketaren ugaltzen 29koa, 1987ko aldi berdinen aldean. 41a kapital-zabalkuntzari dagokio eta 15 akzio-salerosketari. Ez da harritzekoa Toledo bankeroak esatea, orain duela gutxi, "herria saldo-prezioetan saltzen ari gara".

## 1.2.D. GIZARTE POLITIKA

Esana dugu, PSOeren gobernuaren gizarte-ekonomiarekiko politikaren hildoa Chicagoko Eskolaren monetarismoko filosofia atzerakoian oinarritzen da. Prezioei eutsi beharraren aitzakiz, langileen bizitza-baldintzei egindako etengabeko eraso estaltzen da. Luze ez dela, IPC delakoa disparatu zenekoan, boro-bila izan zen Solchaga, aloger handiak negoziatuz gero ekonomi-politika gogortu egingo zenaz mehatxatu zuelarik (ez da baren goitiko gehipenik onartzen).

Sistemaren irabazi-tasa igoaraztera abiatutako politikak, gizarte eta ekonomia arloetan, lau zutoin ditu euskarri. Langebezia, lan-merkatua malgutzea, ekonomia murgildua eta langileen bizimoduaren okerragotzea, horretarako benetako alogeren beherapena eta gizarte-laguntzen bazterketa erabiltzen direlarik.

Azken zentzu honetan abiatzen da Pentsio-Fondoaren sorrera, zeintzuek langileak eurak izan daitezkeen pentsio duinak finantziatuko dituztenak gura duten, fondoak, gainera, instituzio finantzieroetara zuzentzen dituelarik, gehibarioa ateratzea eta irabazi-tasa haztea ahalbideratuz.

“Lan merkatuaren malgutzea” deritzonak aloger errealek malguak (beherantz baino ez) eta aldi baterako kontratuak, horietatik dakartza batez ere. Bestela esanda, kaleratze askearen geldiroko instituzionalizazioa eta langileek iraganeko eskuraturiko gizarte-lorpenen estuketa.

Ausnarketa berezia merezi dute ekonomia murgilduaren garrantzi hazkorrak eta beraren esangurak. Egungo lan-merkatutik egotziak izan diren “irteera” dela esanez definitu daiteke. Dakartzanak dira lan-baldintza gogorak, aloger txiki txikiak, gizarte-estalduraren eza eta ugazaberiaren aurrean erabateko defentsarik eza. Beharrezkoa du sistemak ekonomia murgildua, bizirik irauteko bide hori izan ezik sor litekeen kaleko egonezinari aurre egiteko behinik behin. Gainera, ekonomia murgilduko behetokoez gehibarioen hurrupaketa basatiak ahalbidetzen dituzte. Halaber, “Welfare State” delakoaren astiroko uzketaren edo, behar bada, porrotaren adierazgarria da. Beraren izate hutsak auzitan imintzen du indarrean den gizarte-eredua eta gizarte-ereduaren aldeko borrokoren premia berresten du, bizirik irauteko bide bakarra hustiaketa duen sistemaren krisi, langabezi eta gizarte eta moralaren degradapenari irtenbidea emango dien lehen urrats gisa.

## 1.2.E. EUROPEAR AGIRI BAKARRA

EEEan sartzea 1986an izan zen. Sarrera horrek duen kostua alde bitatik begiratu behar da:

A) Aldez aurretik, bermoldakuntzaren lehen fasea deritzona burutzea eskatu du, azken buztana 1988rarte luzatu den Euskalduna ixtea izan delarik, langileek egindako aurkako indarra izanik atzerapenaren zioa.

B) Inperialismoaren eskakizuna eta EEEko erresuma pribilegiuekiko estatuaren zeregin marginalaren ezkutuko onarpena eskatzen zuten sarrera-baldintzak (ez direnak inolako plebizituan onartuak izan) halaxe onartzea izan da bigarren kostua.

C) Hirugarren kostua, aurrekoaren ondorioa dena, Estatuaren burujabetasun politiko eta ekonomikoaren zati baten galeraren onarpena da, ondorioz, Autonomi Estatutu gaixo eta ez-askien ahalmenen murrizketa gertatzen delarik.

D) Arantzel-murrizketa progresiboa, oro har Estatuako Ekonomiaren kompetibitate eskasa, multinazionalen oldarkorkeria, PSOeren gobernuaren permisibitatea eta ente autonomikoez men egitea, guzti horiek kontu korrentezko balantzaren defizit gogorak eragin dituzte, ondoriozko oihartzun ezkorak izan dituelarik lehen sektorean (nekazaritza, abelkuntza, mehagintza eta arrantza) eta industria sektorean.

Guzti horri gehitu behar zaio 1992an Europar Agiri Bakarra indarrean sartuko dela, zeinek “lau askatusunak” (merkantzi, diru, pertsona eta zerbitzuen higikortasuna) abiaraztea duen helburutzat, horretara, zerbitzu eta merkantzien esportazio eta inportazioarekikoan deskribaturiko bilakaera arinduz. Prezio-kompetentziaren bidez gaitu gura da esandako kompetibitate eza (alogerak lotuz), zeren teknologiararen ikuspuntutik sakona bait da aldea eta, egungo sistemak, alde horrek oztopo gaituzte eta denboraz la-riagoak osatzen dituzte.

Ikuspegi politikotik, Agiri Bakarra, jagoitik, beste orma bat da – oso serioa – herri zapalduen nazio-erribindikazioetan aurrera egiteko bidean. Estatuak Europa da, Agiri Bakarraren bidez indartuta irtengo dena gainera.

Gaiari buruzko ausnarketa sakona behar da, bai hor diren oztopoei egokitzeko, bai PNV-EAk bezala, europar markotik Herrien Europara hel daitekeena sinesten dutenen lan itogarria gainditzeko, Herrien Europa hori EEEn arerio adiskidetu ezina bait da, azken hori filosofia inperialistari lotuta dagoelako.

### **1.3. HEGO EUSKAL HERRIA**

#### **1.3.A. BERMOLDAKUNTZA PROZESU IRAUNKORRA**

Espainar Estatua EEEn onartua izan zedin, Bermoldakuntzaren lehen aldiak beharrezko "sendaketa" esan nahi izan zuen, Kapital Monopolistaren interesei erantzunez. Hala eta guztiz ere, benetan 1993an indarrean sartuko den Agiri Bakarrak, bermoldakuntzazko dosi berria eskatzen du. "Bigarren aldia" deritzon horretan buru belarri sartuta gaude, gure ekonomiako oinarritzko sektorei eragingo diona (Siderurgia, Itsauntzigtza, Altzari arruntak, Bereziak, Elektra-Ekipoetako Ondasunak...) 70.000 lanpostu suntsituko dira Estatuan eta 10.000 Hego Euskal Herrian.

**ACENOR.** Orbegozo, Olarra, Echevarria, Aceros de Llodio eta Forjas Alavesasek osatzen dute taldea. 1981an 10.527 langile izanik plantilak bere barruan, oraingoz 3.530ean egonkortuta gera bedi gura da, horretara Europarekin "lehian" sartzeko gai izango delakoan.

**NAVAL.** Euskalduna itxi ondoren ("zigor operazioaren barruan kokatua, zeinaren bidez Euskal Herria industrimortua bilakaraztea gura den) untzigtzaren etorkizuna ilun ikusten da Hego Euskal Herrian. 927 langile Sestaoko Navalean sartuko zirela agindu ondoren (azkenean, 535 izango dira, askoz ere gutxiago, erizpide "tekniko-politiko" en arabera aukeratuak) guztiak iragartzen du untzioaren krisialdia, plantila alde aurretik gehidimentsionatua egon eta Sestaoko untzioarako eraikuntza-politikarik ezaz gain, 1990erako Europan 30.000 eta Espainiar Estatuan 6.500 lanpostu kendu gura direlako, guzti horrek argi uzten duelarik untzioa hori desagertzeko zorian dagoela (1989rako aurreikusten den zeregin maila I.N.I.ko unztzigtza arloko batezbestekoaren oso behetik geratzen da).

**SUDERURGIA OSOA.** 1981etik aurrera bermoldakuntza prozesua jasaten ari da Altos Hornos. Hasiera batetan 4.910 lanpostu suntsitu ziren. Egun, beste 1.294 kendu gura dira, 12.974 pertsonadun plantila 6.590ean utzi arte 1990erako. Hala eta guztiz ere, egokipen berria eskatzen ari dira Bruselatik. Begibistakoa dena zera da, dagoen merkatuak eta EEEn ezarritako kuotek Estatuoko tegi bientzako, Ensidesa eta A.H.V., lan-zamarik ekartzen ez dutela. Administrazio zentralak A.H.V.kikoan aginduak betetzeko izan dituen luzamenduak eta zabarkeria kontutan izanik, bildur izatekoa da ez ote den apurkako lurreraketarako bidea erraztatuko epe luzean.

**ELEKTRA-EKIPO ONDASUNAK.** CENENESA-CONELEC planak, 1990erako, 1.872 lanpostu kendu gura ditu, aurrejubilazio (1.612) eta baja sarituen bidez (260).

**MAGEFESA TALDEA.** Etorkizun hurbilaren barruan, beste 200 lanpostu kendu gura dira.

**ALTZAIRUGINTZA ARRUNTA.** Taldea osatzen dutenak hurrengoak dira, Orbegozo, Aris-tain, Nervacero, Unión Cerrajera, Arregui, Aceros Corrugados, Ucin eta Laminor. 4.202 langileek osatzen dute plantila. Mc.Kinsey planak aurreikusten duenez eta europar lehiara egokitzearen, lanarigoari dago-kion arloan, 50ean murriztu behar izango da berau (1.200 langile, gutxi gorabehera).

#### **KRISI-ESPEDIENTEAK**

Inperialismoaren plan guztien aurrean makurtu den PSOEek bilatzen duena ez dela besterik, Euskal Herriko industri-ehunaren suntsiketa baino.

Datuon gehigarria dira krisi espedienteak, krisi-ekonomikoa etengabe sortaraziak, krisi hori hasieran gure ekonomiako funtsezko arloetan izatetik gainerako guztietara iragan delarik ondoren.

Hurrengo datuak 1986 eta 1987 erakoak dira, Herrialdeen arabera:

## KRISI ESPEDIENTEAK

<b>1986</b>					
<b>HERRIALDE</b>	<b>ENPRESA KOPURUA</b>	<b>MURRIZKETA (Ihardunaldian)</b>	<b>ALDIBATERAKO ETENA</b>	<b>HUTSALKETA</b>	<b>GUZTIRA</b>
ARABA	85	4.705	2.944	623	7.862
BIZKAIA	1.581	7.445	31.266	3.277	41.960
GIPUZKOA	886	3.419	24.542	2.792	30.755
NAFARROA	-	377	3.541	853	4.771
<b>1987</b>					
ARABA	92	1.407	4.118	391	5.916
BIZKAIA	1.315	14.195	25.572	4.784	44.551
GIPUZKOA	599	1.510	23.600	3.272	28.381
NAFARROA	75	797	680	604	2.081

\* Azken lan zutabeeko kalteturiko langilei-kopuruari buruzkoak dira.

Guzti honi gehitu behar dioguna da 1981-1987 tartean, enpresa handietan 30.000 lanpostu galdu zirela, eta 80.000tik gora industria arlo zabalean. Prest dago industria-eraihsen prozesua.

### **LAN-MERKATUA, BIZTANLERIA AKTIBOIA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA**

Datu ofizialen arabera, lan-merkatuak hobekuntza nabarmena izan du, jarraiko hirugarren urtez sortu direla lanpostu berri garbiak. Euskal ekonomiak ematan dituen datuekin eta etorkizunaz diren aurreikuspenekin kontraesanean sartzen dira datuok.

Ohartarazteko da Biztanleria Aktiboaren Inkestak aldaketa nabarmenak izan dituela 1987ko bigarren seilabetekoez gero (informazioaren erabilkerari buruzko arau berriak, estatistika-taulen taiukera berria...), Estatu EEEetan barrukoa izatearen ondoriz ezezik, zio politiko eta intosikatzaileengatik ere.

Estatistika-datu "ofizialak" tentu handiz eta izpirutu oso kritikoz hartu behar direla lehenago ere ohartarazi dugu. Ez dago enplegu finkoa aldi baterakoarekin nahasterik. Edozein inkesta egitean, enplegatutzat jotzen da erreferentziko astean ordubetez lan egin duena. Datu hau gogoan, nahikoa dugu lanezaren benetako aurpegia ezkutatzera zuzenduriko estatistikak aurrarretaz hartzeko.

**279. Laukia** *Enplegu eboluzioa, langabe eta langabe-tasa. Urriatik-Abenduara (m an pertsonak).*

Arloa	Urte	Jendetza Lanpetua (m an)			Jendetza Langabezia (m an)			Langabezia Tasak (%)		
		Gizona	Andrea	Guztira	Gizona	Andrea	Guztira	Gizona	Andrea	Guztira
Araba .....	1985	61,2	21,4	82,6	10,0	7,4	17,4	14,0	25,7	17,4
	1986	62,4	20,6	83,0	10,3	9,2	19,5	14,1	31,0	19,0
	1987	58,1	22,0	80,1	10,3	10,7	21,0	15,1	32,7	20,8
Guipuzkoa .....	1985	143,1	55,3	198,4	34,2	23,2	57,4	19,3	29,4	22,4
	1986	149,0	55,3	204,3	36,5	27,3	63,8	19,7	33,1	23,8
	1987	149,4	64,6	214,0	32,8	32,1	64,9	18,0	33,2	23,3
Bizkaia .....	1985	255,6	88,3	343,9	75,6	42,3	117,9	22,8	32,4	25,5
	1986	243,6	97,7	341,3	68,4	41,5	109,9	21,9	29,8	24,4
	1987	248,5	106,4	354,9	53,2	47,5	100,6	17,6	30,9	22,1
E. Autonomia .....	1985	459,9	165,0	624,9	119,8	72,9	192,7	20,6	30,6	23,5
	1986	455,0	173,6	628,6	115,2	78,0	193,2	20,2	31,0	23,5
	1987	456,0	193,0	649,0	96,3	90,3	186,5	17,4	31,9	22,3
Nafarroa .....	1985	109,3	37,3	146,6	20,0	15,7	35,7	15,4	29,6	19,6
	1986	118,4	40,0	158,4	20,5	15,0	35,5	14,8	27,3	18,3
	1987	117,4	47,5	164,9	14,6	18,9	33,5	11,1	28,4	16,9
Euskal Herria .....	1985	569,2	202,3	771,5	139,8	88,6	228,4	19,7	30,4	22,8
	1986	573,4	213,6	787,0	135,7	93,0	228,7	19,1	30,3	22,5
	1987	573,4	240,5	813,9	110,9	109,2	220,0	16,2	31,2	21,3
Espainia .....	1985	7.379,2	3.023,3	10.411,5	1.874,4	1.059,5	2.934,0	20,2	25,9	22,0
	1986	7.752,7	3.208,6	10.961,3	1.816,5	1.127,0	2.943,5	19,0	26,0	21,2
	1987	8.064,7	3.529,2	11.593,8	1.539,8	1.364,1	2.903,9	16,0	27,9	20,0

**Iturria:** INE, Encuesta de población activa.

Datuotatik atera daitezkenak dira:

– Langabezi-tasak, batz bestekoak, Euskal Herrian gaintitu egiten du Estatukoa (eta azken hone-tako EEEkoaren bi bider da).

Gorantza doa Araban, egonkortu egiten da Gipuzkoan beheranzko joera ahaluz, beherantz egiten du apur bat Bizkaian eta Nafarroan. Hego Euskal Herrian, kontuz hartu beharreko beherakada gertatu da. Benetako egoerak hazkunderantz jotzen du eta etorkizunaz aurreikusten direnak ez dira alaiegiak.

– Emakumezkoaren enplegua gizonzkoaren bi bider da. Kontuz baina, ezin kasutan ere ez bait da desenplegatu gogogabeturik kontutan hartzen. Esan nahi da, behin behinekoz lan bilaketan amore eman dutenak.

– Hezkuntza konbentzionala duten langileek lan-merkatu gero eta ez-ziurragoa osatzen dute, alo-gera urri eta desenplegu maila handiekin, hezkuntza maila jasoa dutenek enplegu-maila handia eta aloger handiak dituen merkatua osatzen duten bitartean. Beharrezkoa da gaiari buruzko ausnarketa sakona. Ezin diogu uko egin aurrerabide tekniko-teknologikoari baina, demari erantzuko bideak aurkitzen jakin behar dugu. Zein ikuspuntutik? Alternatibaz hornitu behar dugu gure burua.

### 1.3.B. DATU OSAGARRIAK

Garrantzizko beste gaiak aztertzeraz jo aurretik, komeni da datu-banako honi beste zera ere gehitzea, Hego Euskal Herriko egungo egoera hobeto kokatzen lagunduko gaituzten hurrengo ausnarketok alegia.

\* 1988an kapitalak, denok ezagutzen ditugunen laguntzaz, Euskalduna itxea lortzen du. Egiteke di-ren bermoldakuntzak errazago gauzateko ateetariko bat, ixten zaila izango dena, zabalik geratu zen.

\* Langile-heriotzak (7.000 estatu guztian PSOE gobernuan dagoenetik hona) 94 izan ziren 1986an eta 104 1987an.

\* Bankak eta Aurrezki Kutxek 400.000 miloiko irabaziaz izan zituzten 1986an. 35an igo ziren irabaziaz 1987an. Banco de Bilbao eta Banco de Vizcayak bategiteaz estatuko nagusia bilakatzen da BBV delakoa (atzerriko kapitalak kontrolaturik 20a). Denak susmarazten du berregiturako isilezko prozesuari ekingo zaiola. Datu argigarri gisa esanda, traumarik gabe, 23.000 lanpostu suntsitu ditu Bankak azken 6 urteotan.

\* F.P.E. delakoan sarturiko 24.000 langiletarik (Untzigintza, Burdingintza, Altzirukoak eta Elektrotresnagintza) 5.000 izan dira berkokatuak (F.P.E. delakoak 500.000 miloko gastua izan dute Gobernuarentzat).

\* EEEko gazte-langabetu tasa handiena du Hego Euskal Herriak (50aren ingurukoa).

Biztanlego enpleguak atzerantz egin zuen zuen industriagintzan, 70.000 lanpostu galdu zirelarik 1980-85 bosturtekoan. Bermoldakuntza prozesuak eragiten duena da Euskal Ekonomiari funtsean oinarria industriagintzan izatek hirugarren sektorean, zerbitzuetan izatera igarotzen da.

### 1.3.C. EEE. ONDORIOAK

EEEan sartzeak, PSOEek inposatua izan dena, bermoldakuntzen bigarren aldia burutzea eskatzen du, esanda dugun bezala. Pagu-Balantzan dituen ondorioak, oro har, negatiboak dira. Konpetibitate eza eta mugako zerga-murrizketa dira horren zio nagusia. EEEkide gisa emandako lehen urtebetegarrenean hasi dira nabaritzen ondorio negatiboak. Harrioltoa ez diren produktuen inportazioak 17,53an hazi zen; esportazioak, aldiz, 12,56an urritu ziren. Joera honek aurrera egingo du eta 1992garrenaren ostean ere finkatu egingo da. Bitartean, nazioarteko kapitalaren planak "onartu" eta bere burura beroietara egokitu behar izango du euskal ekonomiak. Esportazioei dagokienez, urritu egin dira arlo guztietan, hurrengoetan ezik, Ehungintza, Jantzigintza, Larrugintza eta Oinetakogintza, Meha ez-burdinezkoak, Beiragintza eta Porlangintza, Makineria Elektrikoa eta Garraio-Materialak.

Inportazioetan da ikusgarrien ondorioa. Ia arlo guztietan igotzen dute era orokorrean.

Aipamen berezia merezi du Euskal Nezaritzak. Lau herrialde tarik, Nafarroa da.

Pisu eta ekarpen handiena dituen, zalantzarik gabe, guztizko ekoizpenak Vascongaden bestekoa izanik. P.A.C. (Nekazal-Politika Amankomuna) delakoak nekazalgintza eredu oso industrializatu eta teknifikatua ekarriko du (badakar, ekarri, egun). Testuinguru honetan, zeinetan EEEan duela hogeitau urterik honantz abiatutako eredu produktibistarantz jo nahi den, akats handienak euskal abel-nekazaritza arloko ustiapen txiki eta ertainek izango dituzte (badituzte, dagoeneko), eurok direlarik oinarria gure arlo horretako egiturari.

Atxekimendu-itaunaren ondorio gaiztoak, eredu berriaren sarrera basa, gure egituren ahultasuna, Nekazal-Politika Amankomunaren krisia -finantza kosto handiekin eta gehikinekin-, zenbatzen zailak diren ondorio negatiboak izan dituzte. Gehitu beharrekoa da, inportazioek, esnekienak batez ere. Diskriminagabeak izan direla, alde aurretik EEEarenkin bat etorritako gonerei gainez egin dietalerik, eta honen, arloari eskariaren zatia kenduz gain, oraingo eta etorkizuneko produkzio-planak hankaz gora jarri ditu.

Begibistakoa da esplotazio asko desagertuko direna (EEEan urteko 250.000ek desagertzen segitzen dute). Errentagarritasun mailak urritu egingo dira. Arlo ekoizlearekiko eskariak gero eta handiagoak izango dira; inbertsio ugariagoak, zordunpeta astunagoa, produktibitatearen gorakada, produkzio-kostuen gehiketa, gero eta menpekotasun estuagoa eragiten duten teknika berrien sarrera, esku-lanaren murrizketa, aregotze-tekniken sarrera. Guzti horrek bizimoduaren kalitateari narriadura eragin diezaiotke eta baita elikagaien euren kalitateari ere. Abel-Nekazaritza Nazioarteko Kapitalaren erakarmen-une ezinobea bihurtu dadin, horixe prestatzeko maniobra lotsagabea baino ez da guzti hori.

Kooperatibismoaren bilakaera, aldirako nekazaritza, merkaturatze zuzenerako sarea, nekazariek erakundeak erak, arloaren ardatzea, epe labur eta ertainean aldaketa kualitatiboak izan ditzaketanak dira, ezin erantzun ezingo zaielarik, inola ere, administrazio autonomikoetatik erantzun, ez eta zentraletik ere ez. Nazioarteko kapitala eta munduko nekazal-elikagintzaren industria dira mundu mailako nekazal-politikaren ardatzak nehatzen dituztenak. Sarrera-baldintzak argi murriztatzaileak dira, EEEko gainerako herrien arrantzaldeen babesten bait ditu, berezko arrantzaldeen kaltetan, euskal arrantzaldeen kaltetan batez ere.

### 1.3.D. EKOIZKUNTZAREN RADIOGRAFIA OROKORRA

1987koari buruzkoan euskal sektore produktiboen halako jokabide positiboaz mintza daiteken arren –eraikuntzan ezik–, berreskurapenak ez du, inondik ere, sistemaren krisi egiturazkoak eragin dituen hondamenak konpontzen hasteko biderik aurreikusteko esperantzarik sorrarazten. Hala egitear diren birmoldakuntzek nola hazkunde-espektatibek, ez dute eragotziko lanezaren mailak EEEn denera hal dadin.

1986koari alderatuta, 1987ko hazkunde-tasa 3,5a izan zen, industria arloaren ekarpena bereziki gailentzen dela hor.

Lehen sektoreak errekupeazio galanta izan du, 1986ko produkzio fisikoak, 1985koaren aldean, 11,4ko beherakada izan zuela kontutan izanez gero batez ere. 7aren berreskurapenak ez du balio 1985ko mailetara itzultzeko. EEEn kidea izateak ez du aurreikuspen baikorrik eskaintzen, esan berri dugunez.

Industriaren ekoizpenak 4,7ko igoera izan zuen, euskal barne-eskariaren hedakuntzari esker, horrek, alabaina, ez du esan nahi hedakuntzaldian sartu garenik. Hala eta guztiz ere, 1987an ekoizpen/gizoneko erlazioaren gehiketa, enpleguaren murrizketari gabe, produkzio fisikoaren gehiketari zor zaiola onartu behar da. Hala kostuek nola gehikinek enpresarien alde bilakatu dira. Lehenak urritu egin dira; bigarrenak, aldiz, ugaldtu egin dira, PSOEn langileen aurkako politikabidearen ondorioz.

Burdingintzak 1986ko behe mailetan iraun du, urte horretan izandako murrizketa gogorratik bururik altxa ezinik.

Harriolio eta gasaren industrien ahaltasuna, esportazioak 19,2an jaisteak eta barne-kontsumoaren erorpenak, soldadurarik gabeko hodien ekoizpenaren beherakada eragin dute.

1987an, untzigintzak, krisi sakonean sartuta, zuzperraldi ahula izan zuen, untziola txiki eta ertainetan izan diren eskari –ez kointuralak– berriei esker.

Makina–erreminta eta esku-erremintaren arloak zuzperraldi egin ziren 1987an, baina bien gainean heldatzen da inportazioen gehiketaren mehetxua (109a lehenean eta 49a bigarrean).

Papergintza moderazioz hazi zen 1987an. Paper-ekoizpena 2,8a hazi zen, pastak 0,8a murriztu zen baina. Ikuspenak, sarreraren ondoren batez ere, oso negatiboak dira. Arloa oso atomizatuta dago eta nazioarteko kapitalak enpresa handietara zuzentzen du begirada, eta txiki eta ertainen desagertzea eskatzen duela ematen du.

Elektratresnagintza fruitu positiboak izaten hasi da, enpresarien ikuspuntutik. Buruturiko birmoldakuntza gogor eta barne-eskariaren zuzperraldiaren ondorioa izanik fruituok. 13an hazi zen fakturazioa 1987an.

Etxegintzan, aldiz, hala ekoizpenak nola balio erantsiak estankantatu irauten dute biek, 1986ko mailetikoa.

Garraioek (trenbidekoak eta errepidekoak) gorakada leunak dituzte, 1987an itsasozkoak berriro ere beharantz jotzen duen bitartean. Trenbide zabala ezartzeak ez-errentagarri erazitako trenbide-sareen desagertzea ekarriko du. Gainera. Europatik datozen merkantzien garraioa desbideratzen ari dira. Euskal Herria (Hegoa nahiz Iparraldekoa) isolatuta geratzen ari delarik. Egun, mehatxu itogorri gisa erabiltzen da, eta bete izanez gero, benetako “zigor operazioa” liteke, garraioa, eraginkortasun eta efikaziaren ikuspegitik ikusita, “berezko bide”tzat jotzen denatik aldendu behar arren ere ordainetan. Frantziar Alsthomari burdinbide zabaleko bagoiak 50.000 milioi pezetetako balioaz erosteak, euskal aterpetu politikoen aurkako errepresioa gogortzea du helburu politiko argizat.

Hostalaritzak estankamenduan irauten du.

## AURREIKUSPENAK

Ostertzetzat 1996rako aurreikuspena hartuta eta egungo lege-politikak esparruak iraunez gero, biztanlego aktiboak oraingo urteko tasan (1,2a) hazten segitzen badu 1991erarte eta, itxaroten den bezala, txikiagoa (0,77a) 1991etik 1996ara artekoan, egungo desenplegu-tasak jaisterazteko itxaropenak oso hurru-nak dira. Besterik gabe, ekonomia gaur eguneko desenplegu mailetan iraunarazteko, hurrengo beharkizunak bete behar izango lirarteke:

- EEEetan direnen antzeko ekonomi aktibitate tasak iristea (54a).
- Gizakiko produktibitateak urtero batuz besteko 2,5an haztea.
- Guztizko euskal produkzioa urtero 4,4ko erritmoan haztea.

Kontutan izanik erabiltzen diren hazkunde-zenbatekoak -ekonomi aurreikuspenen arabera- esandakoaren azpitikoak direnez, ez daukagu desenpleguaren murrizketarik itxaroterik, eta are gutxiago 10an diren europar zenbatekoetara iristerik.

Irispidean ditugun azken datuen bidez frogatzen da hori, Eusko Jaurlaritzaren "Economia Vasca en 1988" delako lanean agertzen direnak arau.

Industriagintzaren abaildura etxegintza eta zerbitzuen hobekuntzak motelduta dago, eta desenplegu zenbatekoak 21,8tik 21,9ra jo du.


### 1.3.E. AURREKONTUA. GIZARTE-POLITIKA BASKONGADAK

Egungo marku autonomikoak dakarren bilketa-gaitasun ez-askia da azpimarratu beharreko lehena. Horretara, Foru Aldundien bilketa, 1987an, 337.025 milioi pezeta dira. Gastuen atal hutsa, besterik gabe, Bizkaian eta Gipuzkoan, 338.000 miliokoa da, eurotariko 14.000 milioi benetako inbertsioetara (potenzialki aberastun-sortzaileak direnak) zuzenduta egonik. Gastuetako gainerakoa izaeraz burukratikoa da, edo, bestela, Administrazio Zentralari dagozkion zergetatik datozen sarrerak itzultzetik. Lanpostuak sortzeko gaitasuna, hala egindako inbertsio errelei eskerrekoa, nola lortutako gehikinen ezarpenari zor zaiena (aurrekontuen gainetikoak, B.E.Z.a bereziki), erabat ez-gauza da oraingo langabezia konpontzeko eta, zer esanik ez, euskal berreraikuntzarako edozein prozesuari aurre egiteko.

Gailendu egiten da zerga zuzenek duten pisu itzela, 41,4a, zeintzuek, prezioak zamatzean, langileen lepoetara jausten diren. Hain atzerakoa den IRPF delakoaren bilketa eransten adiogu honi, zamarik handienak leporik ahuleenetan ezartzen bait ditu, ondorioz ataeratzten duguna zera da, indarrean den zerga-sistemak langileen larrutik ateratzen duela funtsezkoena. Elkarteen gaineko zergak, aldiz, biltzen den guztia- ren 7,3a baino ez du osatzen.

Antzeko eraz, Eusko Jaurlaritzak duen aurrekontu arruntak 170.870 miloira heltzen diren sarrerak aurreikusten ditu, horietariko 15.691 miloi zuzentzen direlarik benetako inbertsioetara (berauen ezaugarriak ezagutu beharko lirarteke, gainera) zifra hau 1986ko 2.000en behetikoa izanik.

#### KONTZERTATURIKO ZERGEN BILKETA ARABA, GIPIZKOA ETA LORRALDE HISTORIKOAK 1987



Zerga zuzenak	(58,6%)
a. P.F.G.E.Z. ....	49,7%
b. Elkarreak .....	7,3%
c. Ondarea .....	0,8%
d. Oinardekotza .....	0,6%
e. Deuseztuak .....	0,0%
Zerga ez-zuzenak	(41,4%)
f. B.E.Z. ....	36,6%
g. Act. Jur. doc. ....	2,3%
h. Ond. Best. ....	2,0%
i. E.T.Z.O. ....	0,4%
j. Bestarik .....	0,1%

Iturria: Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzak.

Hala zerga zuzenean (IRPF) nola ez-zuzenetan (BEZ), gehipen nabariak gertatu dira, 42,9a eta 32,4a, hurrenez hurren, esan nahi duenak hiritargo osoaren gainean ezartzen den presio fiskalaren areagotzea, noiz eta langabezi hazi eta aloger-igoerak PSOEn ekonomi-politikak erabat estatuta gauden garai honetan hain zuzen ere.

## NAFARROA


Beharbada, Nafarroako aurrekontuak aztertzean nabarien geratzen den alderdia aurrekonturiko ihardunen estuketa da. 1987an egindako gastuek 1,3an murriztu ziren, 1986arekikoan.

Errotikoa den gaitza, Baskongadeetan bezalaxe, benetako ibertsioetan datza, aurrekontuetariko zifra errealen aldean txikia delakoa ezezik (86,5) 1986koa (88,8) baino txikiagoa delako ere.

Sarrera bolumena –nola nahi begiratuta ere ez-askia– 75.831 milioia izan zen Foru Erkidegoan (1986an baino 1,5a gutxiago) eurei aurre eman beharreko gastuak 73.759 milioia izanik.

Zerga-osaketa Baskongadetakoarena antzekoa da, IRPF eta BEZari dagokiena beherakogoa den arren. Zerga guztiak, orokorrean, gorantz egiteko joera antzekoa da, eta baita presio fiskalaren areagotze zuzengabea ere.

### HITZARMENDURIKO ZERGEN BILKETA NAFARROAKO - ERKIDEGO FORU 1987



Zerga zuzenak	(58,9%)
a. P.F.G.E.Z. ....	48,9%
b. Elkartek .....	7,9%
c. Ondarea .....	1,4%
d. Oinardekotza .....	0,7%
Zeharkako Zergak	(41,1%)
a. B.E.Z. ....	32,1%
f. Act. jur. doc. ....	3,4%
g. Bestarik .....	2,9%
h. Ond. Bes. ....	2,7%

Iturria: Foru Aldundia Nafarroa

### 1.3.F. P.R.E. (BERRABIRAZTEKO PLANGINTZA EZOHIZKOA)

Izen handiguren honen bidez Eusko Jaurlaritzak halako inbertsio plana izendatzen zuen, zeinaren helburuak hurrengoak ziren, 22.000 lanpostu berri finkatzea eta 5.757 langilek osaturiko lan-gehikinaren kostuak ordaintzea, bere barruan sartuko omen ziren enpresetako kudeagintza eta produktibitatea hobetzea, nola baita sektore ezberdinen neurri egokiak ahalbideratuko dituen enpresa-kontzentrazioaren alde egitea. 31.500 milioi pezetek hornitzen zuten plana. Guzti hori, argiro ez-askia, Baskongadetako Ekono- miaren gutxienezko birzuzpertzeta lortzarren.

Languntza-planen (subentzioen) betetazpena 1987an garatu zen. Aurkezten ditugun koadroetako terminologia ulertzeko, inbertsio onetsia erizten zaiona jatorrizko helburuei dagokiona da, burutua dago- neraino egindakoa da (subentzionatua zein ez) eta subentzionatua aurkezturiko planetakoa izanik buru- tua da.

Pisu handiena duten sektoreak hurrengoak dira, Erraminta-makinagintza (guztizkoaren 20a), Offset inprimaketa (10a) eta Burdin Urtzagintza ibilgailuentzakoa ez dena (9a) eta ibilgailuentzakoa (8a).

Ditugun datuak 1988ko Otsailari buruzkoak dira. Ordurako, PRE delakoaren barruko betetazpe- nak inbertsio onetsiaren 48ra heltzen ziren. Inbertsio onetsietan bolumenik handiena dutenak dira beneta- ko inbertsioetan mailarik handiena hartu burutu dutenak.

Plantila murrizketei dagokienez, 89an bete dira. Argi dago berehalako helburua lanpostuak kentzea dena. Hasieran begiratzen zen gehikina 5.757 langile ziren; ondoren onetsia, 6.070 langile; betetazpena, azke- nik, 5.383.

Fondo publikoen lepotik lanpostuak kentzearen bitartez kostuak murrizturik ekonomia "osasuntsu bihurtzeko" balio izan du PRE delakoak. Nabaria denez, ez du ekonomia birzurpetzean lagundu, ez neurria dela eta, ez, are gutxiago, oraingo instituzio-esparruak eskaintzen dituen ahalbideak direla eta. Hobe esatea, hilda jaio zen lege-politikazko esparruaren dohaiak gorestuz, demagogiaz atzipitzeko baino ez duela balio izan.

### BERRABIARAZTEKO PLANGINTZA BEREZIA / INBERTSIDAREN AZTERKETA SAILKA

SECTOR	ONARTARIKO INBERTSIOA		BURUTURIKO INBERTSIOA		INBERTSIO SUBENTZIONA.		BETERAZPEN-GRADUA (*)
	MILIOI	%	MILIOI	%	MILIOI	%	
Máquina-herramienta .....	6.423,60	20,28	4.199,85	20,02	3.473,69	19,07	54,1
I. Offset y/o huecograbado .....	3.222,40	10,17	2.604,24	12,42	2.310,54	12,69	71,7
Forja .....	2.798,90	8,84	1.453,46	6,93	1.240,80	6,82	44,3
Fundición no automoción .....	2.757,50	8,71	1.819,46	8,68	1.769,96	9,72	64,2
Herramienta manual .....	2.699,99	8,53	2.181,43	10,40	2.065,60	11,34	76,5
Fundición automoción .....	2.541,20	8,03	2.513,40	11,98	2.176,37	11,95	85,6
Mueble de madera .....	2.099,90	6,63	923,43	4,40	843,95	4,64	40,2
Tornillería .....	2.079,20	6,57	1.110,27	5,29	979,18	5,38	47,1
Embutición y estampación .....	1.907,90	6,03	1.229,02	5,86	927,18	5,09	48,6
Herramienta de corte .....	1.877,00	5,93	1.148,67	5,48	955,98	5,25	50,9
Muelles .....	1.402,50	4,43	1.098,97	5,24	884,99	4,86	63,1
Elevación y manutención .....	678,40	2,14	249,40	1,19	198,70	1,09	29,3
Bombas para fluidos .....	592,60	1,87	179,13	0,85	172,42	0,95	29,1
Máquinas de coser .....	583,00	1,84	264,54	1,26	209,30	1,15	35,9
<b>Guztira .....</b>	<b>31.664,09</b>	<b>100,00</b>	<b>20.975,27</b>	<b>100,00</b>	<b>18.208,49</b>	<b>100,00</b>	<b>57,6</b>

### AZTERKETA SAILKA

SECTOR	GEHIKIN ONARTUA		AURKEZTUTAKO GEHIKINAK		BETERAZPEN-GRADUA (*)
	GIZABANAKO-KOPURUA	%	GIZABANAKO-KOPURUA	%	
Máquina herramienta .....	873	14,38	709	13,15	81,12
I. Offset y/o huecograbado .....	517	8,52	463	8,58	89,6
Forja .....	363	5,98	185	3,43	51,0
Fundición no automoción .....	180	2,97	135	2,50	75,0
Herramienta manual .....	567	9,34	544	10,09	95,9
Fundición automoción .....	559	9,21	557	10,33	99,6
Mueble de madera .....	379	6,24	363	6,73	95,8
Tornillería .....	199	3,28	170	3,15	85,4
Embutición y estampación .....	95	1,56	75	1,40	78,9
Herramienta de corte .....	117	1,93	113	2,10	96,6
Muelles .....	158	2,60	144	2,67	91,1
Elevación y manutención .....	529	8,72	529	9,81	100,0
Bombas para fluidos .....	256	4,22	199	3,69	75,0
Máquinas de coser .....	468	7,71	468	8,67	100,0
Otros .....	810	13,34	739	13,70	91,2
<b>Guztira .....</b>	<b>6.070</b>	<b>100,00</b>	<b>5.393</b>	<b>100,00</b>	<b>88,8</b>

## 1.4. AUKERAK. SAKONEKO PLANTEIAMENDU POLITIKOA

### 1.4.A. EGUNGO EGOERA

Nahikoa dugu 1.3. atalean aipatu duguna laburbilduta berriro gogoratzeaz. Hurrengo ezaugarriek zertzen duten egoeraren aurrean gaude:

- 21a goratiko desenplegu-tasarekin, murrizteko antz handirik gabe eta, zer esanik ez, EEEko tase-tara hurbiltzetik urrun.
- Kilikolo diren sektore bi. Lehena, heriotza zigorra ezarri diona EEEarekin bat egiteak; eta industria, eraisteko bidean, buruturiko bermoldakuntzen ondorioz; EEEak aginduriko bermoldakuntzaldi berriaren mehatxupean dago berriro ere.
- Gazteen langabeziaren tasa EEE osoko handiena da.
- Alogeren erosketa-gaitasunaren etengabeko urriketa.
- Ekonomia berzuzpertzeko ez-gai izan ezezik, dagoen paroa murrizteko balio ez duen inbertsio publiko nahiz pribatuen maila ez-askia.
- ESP (Euskal Sektore Publikoa) ez-operagarria, burukratizatua, eskumenik, gabekoa, antzua ekonomia berzuzpertzeari dagokionean eta guztion beharrianak betetzeko bidean aurrera egiteko gai ez dena.

Eguno lege-politikazko esparruak frogatu egin du ENAMetik esaten nazka emateraino nekatuta gauden berbera. Hain dira urriak eta ahulak dituen eskumenak, non ez bait dute hain beharrezkoa den Euskal Nazio-Berrikuntzari ekiterik ahalbidetzen. Defendagarria ote da halako politika-jokalekua, Hego Euskal Herria zati bi egiteaz gain, burujabetasunari uko egiten diona, hala orokorrean (autodeterminaziorako eskubidea), nola gizarte, ekonomia eta kulturaren arloetan.

Ekonomi-plangintzak Administrazio Zentralaren agintzei men egin behar baldin badie, zentrolean oinarrituta baldin badago zerga-sistema eta bilketen "bilkinak" ogi apurrak baino ez baldin badira eta ez baldin badago finantza-instituzioen gaineko inolako kontrolik. Lan-legeria Madriletik datorrena baldin bada eta makroekonomi-eredu osoa Estatuan indarrean dagoen berbera baldin bada...

Oraingo esparruaren gainean inork alantzarik izan badu ere, gogora gaitezen Baskongadetan Bloke Erreformista osoak onarturiko "bultzagarriekiko foru-araua" delakoarekin (GBO). Foru-arau honek inbertsio pribatua zuzpertzeko gura du, laguntz-sailaren bidez. Ez zen kontutan hartu, bai Gernikako Estatutoak eta bai Konstituzioak, biek murrizketa gogorra ezartzen dizkiotela Baskongaden zerga-autonomiari. Kontzertu Ekonomikoko 8. artikulua dio hitzez hitz: "no se establecerán privilegios de carácter fiscal directos o indirectos".

Gobernu Zentralak galgatu egin du proiektu forala, egungo instituzio markuak ematen dion legezko arazoian oinarrituta.

Beste gertaera berri bat: Eusko Jaurlaritzak ordekaritza zabaldu Bruselan eta itxi egin behar izan du, nazioarteko gaitan eskumen guztiak Gobernu Zentralarenak direlako.

Eguno esparruaren ez-gaitasunari gehitu behar diogu Bloke Erreformista osoa, salbuespenik gabe, Kapitalaren menpean dagoela. Gobernu Zentralaren aloger-prezio politikak, Hego Euskal Herrian diharduten alderdi instituzionalista guztiek aurkakorik gabe onartua (interes berberak bait dituzte amankomunean), Banka eta CEOEren aginduen menpekoak dira. Ildo berean, nazioarteko kapitalak EEEan sartzeko ezarritako baldintza gogorrak onartu zituzten alderdi "nazionalistek" (PNV-EA), onespen inplizitoaz.

Baldintzotan, gizarte-agenteeek duten maniobra-esparrua ia hutsa da, batez ere partidu eta zentral maioritarioek uko egiten diotelarik langilei zuzenduriko ezer galdetzeari, gizarte eta ekonomia arloetako politika aintieuskaldun eta antilangileari dagokionean.

#### **1.4.B. BOTERE POLITKOAREN PREMIA**

Deskribatu dugun marko honek sunstituta dagoen euskal ekonomia isladatzen du, zeina egunen baitan birzuzpertua izango bada ere langile eta herriko taldeen interesen aurkako interesen arabera birzuzpertuko bait da, hala gizaritari dagokionean nola ekonomia eta kulturaren arloetan.

Hori hola da, zeren eta autonomi-markuak ez bait du benetako nazio-berreraikuntzari ekin ahal izateko botere politiko nahikoarik. Eta egoerak iraun egingo du, euskal burujabetasuna zalantzan egon bitartean, hots, lurraldetasuna osoa ez deino, autodeterminaziorako eskubidea onartzen ez deino, eta gure premiekin bat etorriko den ekonomi-ordenua garatzeko benetako eskumenak ekarriko dizkigun marku instituzionalik ez deino.

Ikusita dugu nola Kontzertu Ekonomikoak ez duen betetzen Komunitate Politiko Burujabearentzako tresna baliagarria izatearen helburua. Baliogabeak dira helburu jakinak iristeko (gutziz beharrezkoak) politika ekonomikoan (Sektore Publiko sendoa, ondaseunen birbanaketa, alogeren batagiterantz jotzea, eskariari zirikatzeta, lanpostuak sortzea...). Egungo zerga-sistemak, Kontzertu Ekonomikoa eta Nafar Kontzertuaren bidez, baliabide fiskaletariko 40aren gainetikoak Madrilera hegaz egin dezan ahalbidetzen du.

1.100 inguru miloi pezetatakoa izan zen Hego Euskal Herriak 1986an sorrarazi zituen baliabideen gutzitza. Dena ere gutxi da euskal berreraikuntzak eskatzen dituen gastuei aurre egiteko (azpiegitura, nekazaritzaren abiabide berria, berrindustrialketa, ekonomi-gizarte eredu berriaren sorkuntza). Alabaina, arazo nagusia da baliabideon kudeaketa egoki, kontrolatu eta distziplinatua (langileria eta herritarreriaren eskuharmen bereziaz) zeina hurrengo ezaugarriak izango dituen euskal ordenu ekonomiko berriaren menpe egon den:

- Gure premiei eta teknologiaro berriari egokituriko gizarte-ekonomi eredu berriaren sorkuntza.
- Ekonomiaren plangintza geure geurea, makromagnitudeen helburuak argiro finkatuz (Biztanle-  
go aktiboa, Biztanle-  
go okupatua, Arolen Egituraketa, Aisialdia, Kontusmoa, Inbertsioa, Kanpo-Merkataritza).
- Euskal Sektore Publiko sendoa, salua, eraginkorra, geure ondasunen gainean oinarritua (portuak, gasa...).
- Finantza-erakundeen gaineko kontrola (Kutxak, Bankuak) etorkizunean nazionalizatuak izatea ahalbidetuz.
- E.S.P.aren inguruan goi-enpresen sorkuntza eta aunizkuntza.
- Sektore pribatuari laguntza baina, ezarritako Ekonomiaren Plangintzak kontrolatua eta beronen menpekoa.
- Zerga-sistema aurreragarriaren sorkuntza.
- Hirugarren sektorearen (zerbitzuak) egokipena eta garakuntza, euskal ekonomiaren premietara eta hazkuntzara egokituta.
- Administralgoaren Birmoldakuntza, beharrezkoa den autonomiaz hornituz udalak, alferrikoak diren bitartekoak kenduz (notariak, erregistroak...) eta egungo zerbitzu publikoen ezari aurre eginez.

Azaldutako guztiak marku berria eskatzen du zeinak, gure burujabetasuna onartuta, eskumen nahi-koak (eta lurraldetasun osoa) bereak izango dituen halako Autonomi Estatutuari bide emango dion, Estatu horrek azaldutakoa bezalako ekonomi-programa garatzeko besteko izango duelarik, alegia.

KAS alternatibako bost puntuak abiarazteak behar dugun instituzio-markua iristea ahalbidetuko du, hori ez dela posible izango Estatuaren boterak eta ETaren arteko negoziazioaren ondoren baino.

#### **1.4.C. L.A.B. EN ZEREGINA**

LAB ENAMEkoa da, KASKidea izatearen bidez, proiektu politiko berbera bereganatzen duelarik, horrek dakarren guztiarekin, bere zeregina langile mugimenduaren alorrean garatuz, langileen interesen alde eginez, herriaren eta klasearen nazioa eta langileen interesak batagiten dituzten helburu taktiko (KAS alternatiba) eta estrategikoetan (Euskalduntzea, Berbatzea, Independentzia eta Sozialismoa) jarrita beti begiak.

Ponentzi honetan barrena ikusi duguna da langileen arazoak orokorrean konpontzea ahalbidetuko duen marku instituzionalaren aldekoa. Egungo egoerari, ENAMetik, “negoiazio politikoaren aldeko indar pilaketa” erizten zaio. LABetik ezinbesteko lan garrantzitsua garatu beharra daukagu: Langileriaren baitan hedaraztea ETA eta Estatuko botereen arteko negoziazioaren bidezko marku politikoaren aldaketaren premia –langileentzak eurentzat–.

Horretarako, tresna bi dira beharrezkoak. Bat, gure herriaren gizarte-ekonomi egoerak duen dramatikotasuna eta egungo markuaren ez-askitasuna azaltzea. Bestea, KAS alternatiba puntuz puntu gartztea, duen lautasuna azaldu arte, beraren izaera demokratikoa agerraraziz, langile interesei dagokiena eta Euskal Herriak bizirik irautea bermetzan duena. Era berean, Erreformaren porrota azaldu behar da, beraren instuzioenarekin batera, guzti horiek ezin diotela mesederik egin nazioarteko kapitalari eta Bankari baino. Alternatiba lortzeak ekarriko duena jauzi kualitatiboa izango da, gizarte jareinagorantz, zeinetan Euskal Herriak berari dagokion lekua izango duen herri jareinen artean.

Alde horretatik, ezin onartu dugu egon dagoen sindikalgintza klasikoaren ildo kolaboratzailea. Usteko izaera apolitikoak, izan ere ez dena halakoa, ez du besterik egiten burgesiaren interesak defenditu baino, langileriari, burgesiaren interes objetiboen etsaia den langileriari, beronen klase eta nazio edukia kentzea izanik izaera horrek nahi duena.

Eusko langileen aldeko gizarte-eraldakuntzarako proiektu politikoaren jabe da K.A.S., bertan nahiz kanpoan jarioak izanik ere langileok. Gizartea aeraldatuz ezik, ezin izango da hobetu langileen egoera. Burgeseriak eskatzen duen gizarte-bakea bermatzeko balio duen zeregin desmobilizatzaile eta desideologizatzailea betetzea onartu zuen sindikalgintza erreformistak, lagabezia eta bizi-baldintza miserableak sorrazten segitzen duten birmoldakuntza plangintzak erraztearren onartu ere. Sindikalgintza horrek, Kapitalaren interesei mesede egiteaz gain, antilangilea, antidemokratikoa eta euskal burujabetasunaren errotiko ukatzailea den Erreforma prozesuaren sustritzea gura du.



## 2. LANGILE MUGIMENDUA AZTERTZEN

### SARRERA OROKORRA

Euskal Langile-Mugimenduaren egoera zehatz karakterizatzea ezinezkoa da, gaur egungi status-ean eragina izanizan duten faktoreak aztertu gabe. Krisi ekonomikoaren ondorioak —izugarritzko desenplegutask sortarazi dituzten ekoizpenerako armonizazio (EEE) eta berregituraketa prozesuen ugaltzearekin— langile-klasearengan, erreformismo sindikalaren iharduera langileak klasegabetzen, desmobilizatzen eta nahastzen, Oligarkiak, Ugazaberiak eta sozialdemokraziak erakutsitako jaiotasuna langileriaren buruak intoxikatu eta beraien abere-neurrien ondorioak moteltzeko, “mass-media” delakoek desideologizazio-lanetarako eman duten laguntza “ideologikoa”... langile-klaseak gizarte osoan duen antolaketa, erantzun, mobilizazio eta eragipen gaitasunean eragina izan duten elementu garrantzitsutzat nahiaz jaso behar diren faktoreak dira.

Mobilizatzeke gaitasuna moteltzea, desenkantua, langileriaren ohizko antolaketa eta erantzun metodoak baztertzea, behingoan ondorio positiboak ekarriko dituzkeen “helburu” zehatzik sumatzeko zailtasunak..., gaur egun elementu hauek erroturik daude Langile-Mugimenduan, non eta lan-postuaren galera elkartasunik ezerako faktore eta are langileen beraien arteko jarrera erreazionarietarako ere.

Eskema orokor honetan, hor da euskal langile klasea, testuinguru konkretu batek galbanizaturik, non ENAM izateak, gizartearen arlo guztietan indar eta kontzientzia politikorako mailak hedatzen dituelarik, oxigenozko baloia ematen dio E.L.K.ari, izari handiko unean uneko erantzunak sortaraziz (Aceriales, Euskalduna...) langileengan jite iraultzailekun mezu politiko-sindikalari iraun erariz eta Gobernu-Estatauren Aparatuaren ekonomi-egitasmoei estaldura ematen dien erreformismo politiko-sindikalean desgaste handiak sortaraziz.

Aldiz, estatu-markoan, eta langileen arazo politiko eta eratzekoei dagokienean, eragin ezkorra du “espainiar ohizko ezker”aren aldetik —PC edo IU— hain zuzen ere konstituzio-moldeei egokitua, nazio-askapenerako borrokak bereganatzeko ez-gauza eta gizartearentzako benetako aldaketaren perspektibatzen mezu antzu eta auto irendua duela.

Hau da, euskal prozesu iraultzailea, berezko klase-osagaia duela, gero eta gehiago intzidituz doa fronte askotatik erasoan den L.M.aren barruan, baina era berean, funtsezko elementua ENAM aurrera joan dadin bere helburu taktiko eta estrategikoetan. Indarren arteko orekan, pentsamoldean... “aldaketak” EZ DIRA BEREKAUTAKOAK edo AZKARRAK IZANGO, astunak eta ENAMen aurrerapen orokorrak eta, batez ere, nolabait ikuskor den horizontearen irekitzeak eraginik —gure zeregin ideologikoa horixe da, hain zuzen—, bertan langileek finko eta uste sendoz, defendatu eta bultzatzen dugun proiektuaren errealtate objektiboa, ikusiko dukete. Hauxe da egunero ekin ekin egin behar diogun zeregina. E.L.M.ak halako ideologizazio mailan egon behar du beti, non koiuntura politiko konkretu batzuri, ENAMek esannahi duen aukera iraultzaile eta progresistaren alde dekantatzeko heldutasun edo azterketarako gaitasun nahikoaz aurre egitea ahalbide diezaion.

Erreformismo sindikalarekin eta ugazaberiarekin dema mantentzeak, LABek langilei eskaintzen dien diskurtsuaren prestaketan eta iraupenean maila handiago erakustearen barruan, behar du, bada, OSATUA izan, langilea, bera inguratzen duen ororen sujetu eginkor bihurtuko duen borroka ideologiko-politikoaz, sistemak eta erreformistek hauspoturik, beraien kontzientziak zanpatzen dituzten apolitikokeriekin hautsiz.

Honela bada, E.L.M.ak, faktore orokorren —krisi ekonomikoa, prozesu erreformista...— eraginpean egon arren, adierazgailu eta antolaketa-errealitateak ditu —LAB eta ENAM orohar— zeintzuek aurrerapen orokorraren barruan borrokatasun-mailak, klase-kontzientzia... berbideratu ahal izateko moduan ezartzen bait gaituzte.

### 2.1. L.M.a ETA “KRISIA”

Sistema kapitalistaren krisi ekonomikoa Oligarkiak eta burgeseriak langileen klase-kontzientzia markur erazteko eta menperatzeko tresnatzen erabili ditu.

Hirurogeitamarreko hamarkadako —77/88ra arte— E.L.M.aren ezaugarria burrukatasun maila zen, non kontzientzia antifaszista langile-errebindikazioen bultzatzaile nagusia bait zen; baina nahiz eta langile-borrokak funtsezko osagai hori —antifaszista— eduki, Euskal Herrian hedatuz zihoan nazio-kontzientziarekin batera, errebindikazioak eta, batez ere, antolaketa-metodoak, erabaki hartzeak, mobilizazio... sendo erazten zihoan, aldi berean, euskal langileen klase-kontzientzia. Asanblada-mugimendua indartsu zegoen, langile-elkartasuna erroturik zegoen eta sistemak ez zuen erresorterik ez zilegitasunik fase historiko hori, non ENAMek protagonismo-maila handia, ETA gotorleku nagusi eta orientabide-foko zuela, bereganatu bait zuen, menderatu zuen ilusio eta idealismodun mendabala gera erazteko.

Diktadorea fisikoki desagertzeak Erreforma-prozesuaren hastearekin batera, akabatu zuten borroka antifasista kontzeptua, zeinek langileen arteko ihardun –batasunerako marko zabalak sortzen bait zituen, hausnarketa eta borroka politiko orokorrerako elementuak isuri eraztearren, aldi berean heltzen da estatu espainolera krisi ekonomikoa, bien artean L.M.aren barruan dardaraldi eta desorientazio gero eta handiagoa sortaraziz, sortarazi zituen jokabide politiko ezberdinengatik.

Krisi ekonomikoak, zeinen ondorioak gainontzeko Europa kapitalistan erabat garaturik bait zeuden, ez du Euskal Herria ez Estatu Espainolean garrantzitsuki jartzea lortzen 77/78 urteak arte. Indikagai-luek botere ekonomikoak homogenotasun-maila handiengan koka zitezten behartu arren, sistema kapitalistak berez sortarazten duen garapen-hustirakuntza infernuko trena ez galtzearren, Estatu osoko eta euskal errealitate politikoak iradokitzen zuen une haietan neurriak moteltzea, langile-klasearen erantzuna ez pizteko eta indar haundiko alternatiba sozio-politikoak eratu frankismoa hil zoria zegoela edo erreforma-prozesu ahul eta ez ziurra. Hau da, Gure ekointz-ehunaren bilakaera industrial-teknologikoaren maila ezberdina izateaz gain, beste herri kapitalista batzuren aldean, Kapitalarentzat edo Botere ekonomiko-politikoentzat argi eta garbi ezin ezkoa zen sistemaren krisi-errealitateak exijitzen zuen ekointz-birmoldaketarako prozesuari ekitea.

Gero 77-82 aldia dator, UCDren zereginarena, non Kapitalaren funtsezko helburua Estatu osoko langile-Mugimendua MODELATZEA bait da, krisiaren detonanteek ezartzen zituzten erabateko neurriak gero eta gehiago areagotuz joatea ahalbide dezaketen (sindikatu batzuren zeregina) ihardun-ildoan eta ordezkapen-sedimentazioaren barruan.

Ikuspegi iraultzaileetatik sistema kapitalistaren krisia langile-klasearen kontzientzia garatzeko, langileen antolaketarako eta sendartu nahi zen frankismoaren jarraipenerako sistema politikoari erasotzeko balora bazitekeen ere, bestalde Botere ekonomikoek, alderdi eta sindikatu erreformistak lagun eta oinarri, langileriaren POZOINTZE IDEOLOGIKORako prozesuari ekin zioten, hala da ze, Kapitala eta beronen morroiak izan direla “krisia” eta beronen konnotazioak erabili dituztenak euskal langileei eta Estatu guztiei dezartada bortitza emateko; zentzuz kontrako handigorik!

77/78 urteetatik aurrera bada, eta estatu guztiko zeregin politiko-ekonomikoak sozialdemokrazia espainolaren eskuetan utzi arte, L.M.ak indarrez erantzuten dio UCDk abiarazi eta bideratzen dituen lehengo neurriei, baina galdi geldika desorientazio sindikala, alderdi eta sindikatu erreformisten laguntzarekin, E.L.M.aren baitan, sistemari krisitik irtetzeko prozesua areagotzen joatea ahalbidetzen dioten mezuak, jokabideak..., ezar eraziz doa. Garai honetan krisiaren ondorio ekonomikoak gero eta gordinago agertuz doaz –gero eta langebezia handiagoa, eraispenak...–, langileen erantzunak askotan gainez egiten erreformismo sindikalari, ugazaberiari erabaki “bitartekoak” hartzea behartuz, beronek langileen borroka neutralizatu eta aipatutako erreformismo sindikalari “beharlekua” emateko formulatzat egindako planetan, hain zuzen.

Berregituraketa ekonomikoari, gizarte-kostu handirik gabe, ekiteko sistemaren ezgaitasunak odore ematen dio, bada, alternatiba sozialdemokratari, zeinen ihardun-ardatza mundu kapitalistaren interes ekonomikoen zerbitzurako –birmoldaketak, EEE, OTAN–, Estatuaren moldatze ekonomikoan eta modernizatzean oinarritzen bait da, eta halaber, noski, ENAMen borrakaren eraginez Euskal Herrian huts egiten ari den Autonomien Estatuaren egonkortasun demokratikoan ere.

Ekonomia arloan PSOEk, langileriaren erreformismoa, desorientazioa eta desmobilizapena urteetan zehar sortzen saiatu ondorengo koltxoi sindikalarekin, prozesu laster bati ekin zion, bertan ekointz-ehunaren oinarritzko sektoreen berregituraketak hurrenkeran gertatzen dira, langabeziaren tasak gorantz doaz, gizarte-desberdintasuna areagotzen da, lege-aldaketa garrantzitsu eta langileentzako negatiboak egiten dira (LOLS, Kontratazioak...) eta indartsu agertzen da ezkutupeko ekonomia.

PSOEn politika langileaurkako eta abere (CCOO-UGT-ELAk jokutzen duten koipeztatzaile lanarekin) honekiko erantzuna gogorragoa da euskal testuinguruan, non L.M.ak, ENAMen eraginagatiko politizazio maila zorrotzagoekin, eta sendartuz doazen nukleo antolatuen lanak –LAB batez ere– kasu askotan sistema tresna motelgarriak moldatzera behartzen dute, sektore osoak eta lanpostuak likidatzeko zituzten planak artekatzeko.

FPE, indemnizazioak, ZUR..., erantzuna baino ez dira, langile-erresistentziak, zein, hori bai, bana bana berregituraketa bakoitzari erantzunez bait doa –kasu edo momentu isolatuez gain– baina politika ekonomiko orokorreko erantzuna, erreformismo politiko eta sindikalaren eta bildurra eta ez-ziurtasunaren (ugazaberiak trebeki erabiliak indibidualkeriaz eta ez-elkartasunez beteriko diskurtsoak sortzeko) aurrean erantzun-dinamika eratzeko ez-gauza dena.

Lanpostua galtzea edo kaleratua izateko bildurra bilakatzen doaz kezka-ardatz, zeinek langileen kontzientzia klase, elkartasun... kontzeptu bestelazkoak gailen erazten dituen, Ugazaberiak eta erreformismo sindikalak erakusten duten barneratze ideologikorako gaitasunaren aurrean. Hain zuzen ere, ez beraien mezuaren asimilatze zuzenean edo sindikatu horietarantzko lerradura masiboan oinarrituriko barneratze ideologikoa, baina bai geroa-ongizatearen ez-ziurtasunaren eta prozesu erreformistaren prozesu erreformistarekiko desenkontuaren aurrean langileak —erreformismoz kanpoko alternatiba politiko-sindikal sendotu gabe— indibidualkeria, desmobilizazioa eta halakodun jarretan kokatzen joatea eragiten duen testuinguruaren eraginpean, guzti honek sistemaren neurrian gero eta errazago artekatzea dakarrelarik.

Lanpostuan geratzen diren eta ustezko kaleratuan arteko aurkamendu azpitiko nahiz agerikoak eta ugazaberiak eta erreformismoak “saltzen” dituzten neurri motelgarriak langileen artean sortzen dute borroka, zeinek, CCOO-UGT-ELAren partehartze-filosofiaz elikaturik, geldi geldika sortarazten bait ditu ezarritako sistemari erasotzeko eta jazartzeko L.M.ak mugapen argiak dituela ikusten duen Ugazaberiaren eraso egunetik egunera gero eta handiagoi erantzuterik eza eta desklasatzea.

L.M.a ahultzen, unean uneko eta orokorreko erantzun-gaitasuna galtzen —salbuespenak albuespen— joan den neurrian, langabezia, ezberdintasun soziala, enpresa ixketak, eraispen sektorialak... gehitzen edo handitzen ez ezik, EEEtik emandako arauetara moldatzeko edo berregituraketan ondorioz, gobernuak girgiluak ere estatutu ditu langileriaren aurkako legeria eta neurri ugariaren bidez: LOLS, aldibateko kontratazioak, gizarte-segurantzaren aldaketa...

Honela, bada, atzerantzko analisi bezala, kapitalarentzako “krisi” ekonomikoaren atalik zailena amaitu bait litzen —soberakinen irazpena, ekoizbidea eta teknologia moldatzea— gaude gaur egun; L.M.ak negatiboki jasan du iraganbide hori. Orokorrean hartu gabe, eta kontutan izan arren langile-klaseak ere bere protagonismoa duen ENAMen borrokaren errealitatea, uste dugu ezen, beharrezkoa dela krisiak eragindako kontzientzia sozialaren narriadura edo izozteak eta antolaketa-kostuak LAB, ENAMen sarturiko sindikatu iraultzailea den aldetik, euskal langileen kontzientzia soziala eta politikoa hedatzen eta barneratzen ahalegin handia ere handia moldatzera behartzen dutela.

Agerikoa da, era berean, ezen gaur egungo testuinguru politiko —sozialean eta euskal prozesuaren beraren jitearekiko, antolaera— nukleo indartsu eta homogeneoetatik baino ez daitekeela bideratu partehartze sindikalerako ildoak, zein, botere politikoaren hartze eta transformaziorako proiektu politiko batean sarturik, berrezartzen eta hedatzen doakeen langile-klasearenganako konfidantza eta etorkizun mezua, beronen partaide egirik eta erreformismo sindikalak eta politikoak beren bitarteko anitzen bidez etengabe sartzen dituen “lokarri” ideologikoak apurtuz.

## 2.2. L.M.a ETA ERREFORMISMO SINDIKALA

Garrantzi handikoa da erreformismo sindikalaren papera eta erantzunkizuna langileek gaur egun duten kontzientziarik ez eta ahultasun inguruan.

Bereiztu beharreko nabardurekin bada ere, CCOO-UGTk alde batetik eta ELAk bestetik ezaugarritzen dituen lokarri amakomuna dute: Konstituziotik sorturiko sistema politikoaren barruan oso ondo artekaturiko sindikalismoa egitea. Zein bere “tutore edo aita” politikoak eraginik, sindikalismo erreformista beste pieza bat gehiago izan da erreformaren ezarkuntzarako, Aipatu erreforma-prozesua gertatu den testuinguru politiko-ekonomikoan protagonismo handiko jokabideak bereganatuz.

Patu-politika, edo “klaseen arteko lankidetzeta” —Pactos de la Moncloa. ANE, Ley Básica de Empleo, Estatuto del Trabajador... — Ugazaberiarekin edo sistemarekin aurkatzera koan desklasaturiko ideologia sartzea, ekintza sindikalaren burokratizazioa, langileok geneukan borroka eta antolaketa kapitala hautsiz, L.M.aren despoltizazioa, borroka sindikalaren kontzeptu geldi erazlea txertatzearen bidez..., guzti honek zera gertarazi du: CCOO-UGT-ELA Kapitalaren politika ekonomikoa garatzeko tresna egokiak edo mintzakide BEHARRAZKOAK izatea, edo, are, sindikalismo iraultzailea desprestigiatzeko edo neutralizatzeke tresna bihurtzea.

Erabiltzen duten parafernalia erreibindikatuzailearen eta langileen interes behinetarako —soldatak, pentsioak... — erreferentzia-guneak izaten segitzeko ahaleginaren atzean sistemarekiko MOLDATZEA dago eta halaber gizartea aldatzeko proiektuetarantz langile-klasearen aurrerapena eratu eta hedatzeko lan politiko-sindikala bertan behera uztea.

Sindikalismo honek, zeinek kapitalak garaturiko Politika ekonomikoaren eragin eta ondorioetan “suhiltzaile” lana bete bait du, lankidetzakeria jarrera sinestezinetan jausiz, gertarazi du ezen gaur egun, kaleratze, berregituraketa, aplikazio legalak, eta besteren prozesu aberearen ondoren, euskal langile klasea, neurri handi batetan burgeseriaren interes eta pentsumenduekin ados dauden eskema ideologiko-sozialetik “zintzilikaturik” egotea. Kisia dela eta lankidetzeta-filosofia onartzea, langileen artean denok ezagu-

tzen ditugun ondorioekin sartua, eta EEEEn integratzeko apostua, aipatutako organismoa kapitalaren estrategia hedakorren barruan ideologikoki ezaugarrituko duen inolako azterketa politiko-ekonomikorik gabe, sindikatu hauek kapitalismo modernuaren luzakin hutsak eta askatasun sozial eta nazionalaren bidean euskal langile-klasearen etsaiak direlaketzat inongo atxakirik gabe definitzen dituzten “froga estrukturalak” dira. Haien eskuhartze sindikala, batzutan progresismo eta radikaltasun ukituak erakutsi arren, erabat meneraturik dituzte desmobilizaketan ongi ezarririk dauden “indarrek” eta E.L.M.aren barruan, sindikalismo iraultzaileari gora-behera handiak eragozteko, ordezkartasun maila mantentzen segitzeko parafernalia huts bihurtzen dira.

Identifikatzen dituen lokarri amankomunetik abiatuz, sindikatu hauen iharduera praktikoen desberdinketa eragin sozio-sindikalei loturiko balorazioei, ez besteri, atxekirik dago; hau da, zaila da katalogatzea, UGTri, tutoretza politikoagatik, gobernuaren politika ekonomikoarekin lerrotuago egotearen papera tokatu bazaio ere, nor den “erreformistena” edo nor “ezkerrekoena”. Unean uneko estrategiek, —lantegika— kanpaina orokorrek, partehartze praktikorako planek ez dute oinarritzat Ugazaberiaren eta sistemaren aurkako ildo zehazturik, bai, ordea, zein bere hedapena, aukera... eta halako balorazioei atxekirik dade; CCOO era ere, eta euskal errealtatean begi bistakoa da, “ezker” itxurak edo sindikalismo sozio-politiko iruditu arren, langile-klasea beraiek —beste sindikatu eta alderdi politiko batzuekin batera— eraman duten errealtateak berak baldintzaturiko parametroen barruan mugitzen den errealtate sindikala da.

Aipamen berezia, garatu duten ildo orokorrari buruzko kalifikazioez gain, merezi du sindikatu hauen zereginak lan-harremenen burokratizazioan eta langileen erantzunean. Negoziaketa Kolektiboa prostituitzea, soldata-negoziaketa hutun bidez, zeintzuk, erreibindikazio sozialak bertan behera uztean, frustrazioa eta desorientazioa sortarazten bait dute, asanbladari eta Enpresa-Batzordeari egindako etengabeko sabotaiak, Sekzio sindikalen eta azterketetan eta erbakiak hartzean langileen partizipazio aktiboa apurtzen duen “ordezkabide sindikala”ren eragina bitarte, praktika sindikaltzat ilunkeria informazioan, mobilizazioen erabilpen propagandiztikoa eta kontrolatua eta etengabeko etsibidea halako edo bestelako erreibindikazioekiko, beti balorazio kuantitatibo-ekonomikoen menpean, langile-klaseko sektorerik ahulene, zeintzuek zeharka lantegietan edo lan-lekuetan sindikatu haiek duten iharduera praktikoa sendartu, katalogatzen... duten, eraginik. Soil-soilik sindikalismo iraultzailearen pisuak edo eraginak behartzen ditu unean uneko errektifikazioak egitera edo beren ohizko jokabidea birmoldatzera.

Sindikatu haien praktikak ekarri dituen desgastea eta deslotzeak oso handiak dira, beraiantzat ere zailago eginik langileekiko “lokarria”. Lege-testuingurua hain langileen aurkakoa izanik, eta langileen aurka gero eta eraso gehiago pentsaturik duen bilakabide ekonomikoaren aurrean, sindikatu erreformistek gero eta gaitzago dute beren hedapena eta ergina bideratzeko euskal errealtatean, non ENAM ete LABen intzidentzia langileengan egunetik egunera gero eta handiagoa bait da.

Aldiz, azken urteon bilakbidearen ondoren, L.M.aren barruan elkarkontrajarritako bi erakera gorpuzten doaz. Alde batetik, lehen esan bezala, sindikalgintza sozio-politiko eta iraultzailea, gizartearen aldaketa hurrenkako, ENAMen bidez, proiektuan txertatua, zeinek hedapen eta eragin apurkazkorako ahalbide handiak dituen, eta bestetik sindikalgintza korporatibista-“independientea” mezu “apolitikoei” atxekia eta hertsiki mugatuak lanbide- iharduera konkretuetara edo lantegi berezi batzuetara.

Euskal Herrian azken “alternatiba” hau oso gutxi garaturik egonagatik ere, kandidatura “independiente”ak gero eta gehiago agertzen ari direla ikus dezakegu, aldi berean beheraka doalarik, erreformismoa orokorrean, bereziki Euskal Herrian CCOO eta UGT.

### **2.3. EUSKAL LANGILE MUGIMENDUA ETA E.N.A.M.**

ENAMen eragina E.L.M.an berberagatik eta definitzen duten helburuez berezkoa zaiona da. Baiez-tapen honek ez ditu ezkutatu behar dauden aldakin edo etapak, zeintzuetan E.L.M.a, bultzatzen dugun prozesu iraultzailearen barruan duen protagonismoarekiko, garatu bait da.

70etik 78ra, non E.L.M.a oinarritzko elementua izan eta herri-borrokak oihartzuna eta erantzuna aurkitzen bait zituen, langilegoa biltzen zuten zenbait faktoreren konbinazioaren aurrean —borroka antisfasista, auto eraketa eta nazio-exijentziak—, gaur arte, non, L.M.a lokaturik, prozesu erreformistak, testuinguru ekonomikoa gehigarritzat, nahasmena eta paralizazioa sortu bait ditu, kontutan hartzeko moduko aldaketa dago.

Argi dago; hirurogeitamarreko hamarkadan gizartean L.M.aren eragina, erantzuna eta protagonismo nabaria ahalbidetzen duten faktore positibo asko bateratzen dira, sistemaren aurkako borrokarako ariete bihurtuz. Huelgak eta borroka erreibindikatuak politizatu egiten ziren eta erantzunak enbido politiko-zapaltzaileei indarrez ematen ziren irakiten zegoen L.M.an, zeinen borroka erabat artekatzen bait zen ENAMen estrategia desestabilizatzailean eta desgastekoan, hala ere, hura ez zegoen antolaketa aldetik sendaturik ETAtik isuritako proiektiopean.

Erreforma-prozesuaren ildoan eta geldi-geldika, sindikalismo erreformista indarrez sartzea eta tesuinguru ekonomikoaren ondorio negatiboak, estabilizatu gabeko kontzientzia sozialean, L.M.aren estutzea sortarazten doaz, beronek ere protagonismoa galtzen duela prozesu iraultzailearen barruan. Protagonismo-galera, INOLA ERE EZ ENAM-EK ARTEZTEN DUEN, GERO ETA GEHIAGO, PROIEKTU POLITIKOAREN AZPIAN DATZAN KLASE-EZAUGARRIA ALDATZEA ESAN NAHI DUENIK. Balorazio labur honetan beharrezkoa da bera elikatzen duen erreferentzia nabarmen bat azpimarratzea: dauden sendarpen-zailtasunak, ENAMekin lerroan doakeen proiektu sindikala gorpuzteko, eta langile-sektore zenbait bildu eta L.M.aren barnean eragin handiagoa izan zezakeena 77/78 urte horietatik aurrera.

Estutze honek eta L.M.ak ENAMen estrategian protagonismoa galtzeak, fronte askotatik sortarazitako desideologizatzeaz osaturik, geldika sistemak L.M.ko sektoreen kontrajartasuna areagotzen eta sustatzen joatea dakarte, —hau Estatuak “problema Vasco” delakoaren aurkatze-politikaren barruan— ENAMen estrategia eta borroka-metodoaren aurka, hain zuzen. Guzti hau, zeinek, argi eta garbi PNV-PSOE-EA-EEren ENAMen aurkako egintza politikoarekiko kontrajartze eta dekantazioarekin erlazioa bait du, ez da lortzen jarrera definitu eta iraunkorretan konkretatzea; BAINA BAI INDARRA KENTZEN DIO NEURRI HANDI BATEZ ENAM-ek L.M.a ERABILTZEARI —huelgak, errepresioaren aurkakoak, politikoak...— sistema desgastatzeko eta desestabilizatzeko bultza-oinarriztat. CCOO-UGT-ELak egindakoek eragin handiagoa izan dute gure ekimenak erreformismo politikoak puzturiko formula eta mezuez APURTZEN, ENAMen aurka argiro kontrajartasuna garatzeari ekiten baino, nahiz eta sindikalismo erreformistaren jokabidea aktiboagoa eta zuzenekoagoa den kasuak eta geografi guneak egon.

Antolatzeko ahultasuna, beraien irdezkaritasunaz gain, beraien afiliatuek osatzen duten konglomeratu “ideologikoa”, beraien diskortsuaren apolitizismoranzko joera antolatze-hedakuntza kontzientzia ahulena duten langileengan oinarrituz, sindikatu horiek beroriek sortarazitako desmobilizazio orokorraren maila, egoera politiko-ekonomiko konplexua eta LABek gero eta eragin handiagoa duela, pisua duten faktoreak dira sindikatu hauek denari emanda eta kualitatiboki hobeto “joka” dezaketenean ENAMen aurka.

Honek ez du esan nahi ezen euskal prozesu iraultzailearen ildo desbedinen arabera sistemak agente sindikal erreformistak erabili behar duenik intoxikazio ideologilorako —egun egiten duten baino aihar eta entitate handiagoarekin— edo ENAMen borroka-metodo eta helburuen kontra mobilizatorako tresna antolatutzat. Mobilizazio-maila gaitza izan arren —guretzat ere bai azken urteotan sortutako egoera eta polarizazioagatik eta indarren arteko erlazioagatik— bai azpimarratu behar dugu erreformismo sindikalaren protagonismo eta eragin handiagoa L.M.aren barruan gure proiektu politikoak ezaugarritzen duten helburu politikoak desprestigiitzen eta erantzuten, mezu derrotistak txertatuz edo, baita, oraingo sistema zapaltzaile eta hustiratzailearen argi eta garbi berme emaleak, gai honexek, bada, guztiz langileaurkako enteen artean kokatzen bait ditu. Ildo beronexen barruan, gero eta nabarmenago izan daiteke PSOEn taktika, alegia, L.M.aren barruan eta bilakabide politikoaren ildoan, aurkamendu-arloak zabaltzea, joera “arrazista” dun mezupean —baskoak, ez baskoak elkar baztertzailak... —jarrerak sumintzeko eta ENAMen borroka politikoaren— zeinek indar-biltzean bait di bere estrategiarako zutabe garrantzitsu bat— irispidea eta helburuak desbideratu edo prostituitzeko.

Azkenik bada, ikusi ahal dugu ezen sistemak L.M.a erabiltzen duela, nabaria izatean L.M.a kordaturik eta jazarririk dagoela sindrome bereziak bitarte —krisia— indibidualkeria eta desideologizazioaren sortaileak hain zuzen, halako iharduera-korronteen bideragailua erreformismo sindikala delarik, ENAMen aurkako ihardun politiko-ideologikorako kalibre handiko fronte bezala, bere peoi eta mota guztietako bitartekoz —komunikabideak...—

Guzti honek ahalegin itzela egitera behartzen gaitu ENAMi eta bereziki LABi, halako helburuz non, L.M.aren oxigenatze ideologikorako goranzko plan batetan, euskal langileengan kontzientzia nazionala eta klasekoko berrarmatuko duten diskurtsuak eta praktikak tzerta daitezten eta gero eta gehiago ENAMen

lerroetara integratzen joan daitezten, gure borrokaren funtsa diren oinarriak, helburuak ezagutu-hurbilduaz; zeregin honetan eta lehenengo fasean, erreformismo politiko-sindikalarri indarra kentzen diokeen eta geroko baldintzak funtsatuko dituzkeen borroka ideologiko orokorraren paraleloan, ZIRT EDI ZARTEkoa da LABek antolaketaz eta politikazko mezua eta diskurtsoa bideratzen jakitea, zereginak bereganatzen joan daitezten –kontzientzia orokorraren areagotzeaz eta ez sindikatua mezu “erraz” edo eskuragarriagoetara eskoratzearen ondorioz– ENAMekoak diren baina gaur egun L.M.aren barnean jarraibide finko gabe dabilzan sektoreak.

Lan politiko honek beti joan behar du gure eskuhartzea zilegitu eta langileak gure planteiamendu eta balorazio orokorrean interesatu eta berauei segitzea ahalbidetuko dukeen lan ekonomiko-sindikal neketsu eta hertsian oinarriturik. Ezinezkoa da, L.M. an argikusle edo jauskari antzera “predikatzen” ibiltzea, egunerik egun langileriaren arazo eguneroko eta behingoenetan lan egiten aritu gabe eta are gehiago egun iragaten ari garen testuinguru ekonomikoan. Guzti honek, –oraindik ez behar bezala garaturik partehartze erreformisten tesien ihardupean egoteagatik– zerbitzuetan antzu den sindikalismoaren hedakuntzarako erreformismo sindikalaren iharduera bakar bihurturik –behar du, baita, sindikatuaren ahalbait gehien barneratu, ENAMen borroka orokorrean osakide izateko orduan L.M.aren barnean norbereganatu behar diren konpromezuak eta atazak ez nahastatzeko edo sinplifikatzeko.

#### **2.4. LAB, L.M. AN ETORKIZUNEN ALTERNATIBA ENAM-EN ESTRATEGIAREN BARRUAN**

Lehenengo ataletan azalduko bilkabidea, oraingo testuinguru honetara eramaten duten faktore nabarmenenekin, nahi eta ez osatua izan behar da sindikalismo iraultzaileak garaturiko paperaren beraren ikuspegi analitikoarekin.

Oraintsuko sindikalgintza iraultzailearen “historia”ren sasi-kenketan sakonki sartzeko xederik gabe, bai, nahi genituzke funtsezko gauza batzuren berri eman. Lehendabiziz, erreformismo sindikalaren erraztasun handiagoa azpimarratu behar dugu, berrosatzeko, moldatzeko eta xurgatze gaitasunean hain zuzen, –iruzkinduriko elementu osagarriekin ere– iraganaldiaren irekieran. Ezker abertzaleak, egoera politikoaren elementu motorea, antolaketa eta helburuetarako panorama zaila erakusten zuen eta ez zen gauza izan hurbiltzen ari zen etapari egokitzeko, antolatze-oinarrietatik eta etorkizuneko orientabideetatik, zeintzuek beraren baitan L.M. ko nukleo garrantzitsu zenbaiten kapitalizazioa susper lezaten, hura tensioan eta erantzuteko prest egonik. Antolakerari buruzko aurkamenduak, orokorki ezker abertzale iraultzailearen izenpean amalgamaturiko estrategia askorren ondorio, non erreformismoa L.M.aren barruan era garrantzitsuz eta baldintzagarriz jarri bait zen etapa berean gertatu ziren, gero eta gehiago erreformismoak bere metodo erreakzionarioak, pozoin ideologikoa, langileen aurkako filosofia krisiaren aurrean... sartuz; bigarren faktorea, bilakabide-azterketa prozesu honen barruan, neurri handi batez aurrekoarekin elkar, erlazioatua, proiektu sendo eta bere erresorte ideologiko-praktikoetan ongi finkaturikoa sendartzeko zailtasunak dira. LABen bide bihurri eta gaitzak –masa-antolaketaren etapatik eta, EEren “izterpetik” igaroz, Leioako II. Kongresura eta 80ko Urriko Ormaiztegiko beramen jarraipenera arte – gaur eguneko sendarmenera arte, ahalegin handien ondoren, deskonpentsazio edo desoreko egoera sortarazi du intzidentzia sozial benetan baldintzagarridun ENAM –antolaketa-nahaste trinkoan oinarritua– eta antolaketa-hutsunearen aurrean erreformismoaren sarbidea zorroztu egiten zeneko L.M.aren errealtatearen artean. Azpimarratu beharrekoa da, azken etapan, 85-86-87, barne-dugu erregarrak ere izan ditugula, eta ez dira bat ere onuragarriak izan sindikatuak indarra hartu eta hedatzeko helbururako, blokean bereganaturiko zuzendaritza-ereduazko kontzeptu sahiesbidetsuengatik.

Gaur egun, azken urteotan sortutako bultzada eta 86ko hauteskunde sindikalen ondoren, LAB antolaket-errealtatea da, L.M. ko sektore guztietan finkaturik eta erabat ongi engranaturik geure izatea elikatzen duen estrategia: ENAM.

Errealitate honek, gainera, Euskal Herriko benetako ezkerrearen erreferentzi-puntu sahiestezin eta ordezkazentzat ezartzen gaitu. Azken liskarrek, –azpitikoak baina nabariak– antolaketa-ereduak direla eta azken urteotan izandakoak (autonomoak, Cuis...), ezkerrekoagoko sasi-postulatuekin estalirik, eta kontzeptzio okerreko unitarismoak, LABen esta beronen eredu politiko-sindikalarren behinbehineko konstatazioa ekarri dute. Hau da, konfigurazio hau ikuspegi kuantitatibotik lortua izatea ez ezik, funtsean L.M.aren errealtatearen egungo testuinguruaren agerikoan eta gorantza doan estrategia iraultzailearen

barruan, beharrezkoa dela ere antolaketa-tresna sendoa, bere barnegituran ideologikoki homoginoa eta L.M. osoari erantzuteko orokorki garatua eta halaber eraso sindikal, ekonomiko eta borroka politikoei globalei aurreko alderdiak halaberrez sarturik –beraiei lantegietan eta lan-lekuetan erantzuteko ere.

L.M.an partehartzearen ikuspegi koiunturalistak, hori bai LAB proiektuarenganako samo erregaridun ezkerkeriaz apaindurik, hedakuntzarako espazio errealik ezean estrategia politikorik gabe, L.M.an etorkizuneko artikulaziorako elementuei heltzeko orduan mendre edo entitate mengela izatera erreduziturik geratu dira. Beraien praktika gutxietsi edo deskalifikatu gabe –egunerik egun gero eta artifizialki eta enganiagarriroago, urrean– gaur LAB ARDATZ BAKARRA DA PROTAGONISMOA BILTZEN JOATEA BEREGANATZEN DU, gudu politiko-sindikalaren barruan, L.M.ko SEKTORE GARRANTZITSUAK eta, beraz, eragina eta intzidentzia irabazten ditu; LABez ta ez dago testimonialismo osorik ezin garaituzkoa edo, jakina, LAB sendartzeaz ebatzirik geratu ziren antolaketa-ereduazko eztabaidetan ainguraturiko kontzeptzioak baino.

Eskema edo ibilbide honekin, LABek baditu L.M.an oinarriak eta elementu potentzialak, euskal prozesu iraultzailearen gorunzko bilakabidearen araberrako jite estrategikodun asmoak dituen sindikatu bihurtzeko.

Argi dago ezaugarritze formal honek giza ekarpenak eta ideologikoak eskatzen dituena, egunerik egun eta lantegiz lantegi, LAB zentzu guztietan zabalzen joan dadin. Landun langileak, funtzionariak, pensionistak langabetuak... LAB L.M.aren bitarteko politiko-sindikal oxigenatzailetzat sentitzen joan behar dira, egungo testuinguruan kapitalak dituen planei galga ipintzeko tresnatzat, espazio politikoa lortu ahal izateko antolaketa-armatza. Helburu politikoak, zeintzuetan langile-klaseak protagonismoa eta prozesu askatzaile orokoraren barruan oraingo egoera negatibo hau piskanaka berbideratzea ahalbidetuko dioketen botere-erresorteak eduki ahal izango dituen.

Erreformismo sindikala aspaldi dago goia jota, egunero gero eta laguntza instituzional gehiago, edo sistemarena, behar duelarik, sustraitzeko edo ugaltzeko. E.L.M.aren geroa LABetik pastzen da, pasatu egin behar du.

Antolaketa aldetiko sendarpena, prestakuntza ideologikoa, trebakuntza ekonomiko-sindikala, langileen defentsa eta informazio eta parteharmen aktiborako proiektzio-metodoak, langilegoari zuzendu behar dion mezu baten barruan, nahiz eta lehen fase batetan ENAMen lerroen artean, jada, badauden sektoreak antolatu eta berauei hurbildu nahi izan arren, hausnarketa politiko-sindikalak areagotzeko, defentsa ideologikoak handitzeko erreformismoaren intoxikazioaren aurrean eta erreferentzi-puntu serio, finkatu eta bere kanpo-formulazioan ondo ezaugarriturik agertzeko, antolaketarakoan.

## **2.5. ONDORIOZTAPEN BATZUK - ETORKIZUNERAKO PERSPEKTIBAK**

Aurreko ataletan ihardun ondoren, eztabaidak berak gara ditzakeen nahikoa aspektu geratu arren ñabartzeke edo ekartzeke, interesgarria da perspektiban diren zenbait ondorio aipatzea.

Lehenengo eta behin, erreformismo sindikala euskal errealitatean –Estatu mailan PSOE-UGT “krisian” sakon liteke edo CCOOren proiektzioan– salbuespenik gabe lerroturik dago eskuhartze homogeneorako dinamika batetan, non praktika sindikal ugazaberikide eta etsiari iharduera ENAM aurkako irekiago eta gordinagoak eratzekiko bait zaizkio. ELAk agian zailtasun gehiago daukake, erabakiorkiago “bustitzeko”, baina bere tutore politikoen esanetara areagotu egin dezake bere eraso –etorkizunerako argigarria– ENAMen aurka Langile Mugimenduaren aurrean.

Hausnartzeko ildo beretik, erreformismo sindikalaren jaitsiera, beraren aurka borrokatzeko inolako aldeko faktorerik ezean ere, konstataturik gagoen gauza da, hori bai, ez du esan nahi langileriaren jokaeretan aldaketa handirik egongo denik, sindikalismo iraultzaileak eragina beeganatuko badu ere. Eskuzko lana gainditu duten eta kontzeptzio “aristokratiko”dun “langileak” ezaugarritzen dituzten teknologia berriek eragindako L.M.aren bilkabidea, lan-harremanetarako ordezkaidia edo burokratizazioa ezartzea eta L.M.ko sektore askoren buruetan, desenkatuak, norberekieriak edo ez-elkartasunak prostituiriko gizarteplanteiamenduak gaindi erazteko zailtasunak galga handiak dira, sindikalismo iraultzaileak airezta ditzakeen jokabide edo arauen garapenerako. Hau da, arazoa ezda soilik, erreformismoak intzidentzia orokorra

galtzea –egia dena– edo LAB gorantz doen errealitatea izatea, ahalegina indar-erlazioaren etorkizuneko lerrakuntzak funtsatuko dituen kontzientzia sozial eta politikoa berraktibatzerazuzendu behar dela baino. Ataza horretan, epe laburrerako ageriko emaitzarik gabe, LABek ere orientaturik eduki behar du bere lan teoriko-praktikoa, ezen, lehen adierazi bezala, prozesu iraultzailearen barruko proiektio estrategikodun erakundea bait gara.

Perspektibapeko azterketarako atal honetan eta erreformismo sindikalaren konposizioa, “bloke” honen baitan barne-indarren arteko erlazioan aldaketak izango direlako hipotesiari jarraiki, zatikatuz, gauza bi aipatzeko. Bata, CCOO etorkizun zailena dukeen aukera bezala agertzen da, euskal panoraman gero eta gehiagoko dekantazio politikoen aurrera –EEren lurrartzearekin ere–, eta biga, orokorki sindikatu hauek, afiliazioari dagokionean ere, indarra galtzen joango direla, “krisiaren” etapa gogor baten ondoren –horrek ez du esan nahi amaituta dagoenik, batez ere euskal errealitatean PSOEn politikaren eraginpean eta EEEen sartzean– noiz eta afiliazioa, neurri handi batez, indemnizazio, jubilazio, elbarritasun, kontratu-hutsalketa... eta honelakoan “kudeaketa”ren arabera zetorren.

L.M.aren barruan “funtzionalgoaren” garrantzia azpimarratu behar dugu, gero eta handiagoa hain zuzen, fase honetan pisu erreibindikatzaile gogor eta instituzio erreformistei kostu politikoa sortarazteko gai den sektorea bait da. LABen ezarpen-maila garrantzitsuak, sektore honeta Berregituraketaren “mamurik” –langileengan ez-ziurtasuna eta bildurra sortarazten duena– erreformismoaren beraren morroitzak, sindikalgintza haumantentzen alderdi politikoen konpromezuekiko, hersiki, eraginkorki eta lanarekin, sindikatua Administrazioa langileen artean –sindikatuak besteengandik isolatu gabe– sendatu eta hedatzeko plangintzari ekiteko moduan ipintzen gaituzte.

Bestalde, eta hitz eginez etorkizuneko perspektibez, zeintzu alde iraultzailean LABen aurrerakuntzan sintetizaturik dauden, garrantzitsua da ere, ezen sindikatua, geldi-geldika, baina jobide horrexetan, L.M.ko beste kolektibo batzuentzat eritziguneak eratzen joan dadin, izan ere sortarazi dituen sistemak eta krisi ekonomikoak baztertu nahi dituzte: pentsionistak, langabetuak...; LABek kolektibo horientzako diskurtsua sendartzeko erantzunbeharra du, hasiera batetan sistemaren neurriak desgastatzen baina, langileklase guztiari hurbiltzen joateko ildoan eta helburuaz, bereizketarik gabe, prozesu iraultzailea aurrerantz joan ahala.

Sindikatuak, bada, proiektio-ahalbide asko du, baina ukaezinezko lanari heltzeko deman ornarrituak. Etsaiak eta beronen “kolaboratzaileek ez dute ezer oparitzen eta ez dute beren makineri kontrairaultzailea gelditzen. Guk geure erritmoa areagotu eta indartu egin behar dugu, geure arlo espezifikotiko partehartzearekin ENAMen aurrerapena osatuz.

88-Ekaineko Berregituraketa ezinbesteko pieza izan da –sindikatuak bere aldetik baloratzeko edo kalibratzeko zaila– egituren funtzionaltasuna birregokitzeko, dedikazio-mailak indartzeko eta susmatzen ziren hutsune gakoak berbideratzea habatzeko: Trebakuntza politiko-sindikala, barne-politizazioa, eraginkortasuna eta koordinazio sindikala, gaietan sakontzea, halaber gai berrietan...; ildo honetatik B.N. honek LAB indartuz eta ENAMen duen erantzunkizuna bereganatuz doala, indarrez elkarlanean ihardun beharko dugun dema politiko-globalak datozen arren. Era berean, 90eko hauteskundeetan beste “jauzi” bat emateko gertu dagoen LAB prestatzen joateko modurik hoberena izango da.

# 3. NEGOZIAKETA KOLEKTIBOA ETA ERREFORMISMO SINDIKALA

## 3.1. NEGOZIAKETA KOLEKTIBOA ETA ERREFORMISMO SINDIKALA

Langile Mugimenduaren bilakabidea orokorrean eta negoziaketa kolektiboaren egoera bereziki baldintzatu eta baldintzatzen dituzten alderdi orokorrekiko aipamen logikoekin batera, beharrezko da haren egoeran sakontzea.

Posibilismoa, ordezkabidea, antolaketarako soraiokeria, aurkatze politikoari ekiditeagatiko borroka sindikal antzugarria... Langile Mugimenduan errotik "sustraitu" diren txertapen erreakzionarioak izan dira, sustraitu ere, Gobernuia, sindikatu erreformistak eta Estatuaren aparatuek ideologikoak (TVE, Irratia...) denak batera ekinez sustraitua.

Hau da, birmoldaketak, enpresa itxiketak, milaka kaleratzeak, langabeziaren etengabeko gehikuntza... Estatuaren Aparatuaren aurkako desestabilizatzeko politikoa eta gizartea aldatzeko proiektuaren arabeko korriente politikoaren indarra handitzea ekarri beharrean, Estatu mailan indargabetze ideologikoa eta nahas-bidea ekarri eta haren gotorleku bihurtu dira. Indargabetzea eta nahas-bidea PSOE-UGTren sozial-demokraziak aintzatu eta Estatuaren Aparatuaren estrategiapean lotsagabekiro erori diren egitura sindikalek eta politikoez leialki bultzatu dutelarik.

Baina sindikalismo erreformistaren etsi egite hau, Estatuaren Aparatuaren joko politiko-administratibo-instituzionalaren hatzaparretan "xaloki" jaustean, ez da, ez, aldi baterako iharduteko inolako ezer isolatua, bere hasiera harako Pactos de la Moncloa delakoetan baizik, non eta partiduek eta sindikatuek (PNV, PSOE, PCE, CCOO, UGT...) apostu egiten bait zuten "Konstituzioaren defetsa", "gizarte-kidetzapena", "krisiari irtenbide negoziatua"... eta abarren alde, axioma hauexek izan dira, hain zuzen ere, sindikatu eta partidu hauen klase-jitea irentsi eta diluitu dutenak, beraiek praktikan jartzeaz langile-klasearen baitan nahasketa handia sortaraziz.

Pactos de la Moncloa delakoetan eta hurrengoetan (ANE, AMI...) ernamuindu zen ildo politiko-sozialetik sortu da, geroago, testuingu sozio-ekonomikoan langileen betebeharra eta indarra alferrikaltzen joan den praktika.

Estatuaren Aparatua, aldiz, praktika txepel eta erreformistak utzi izan dituen "zirrikitu" guztiak aprobetxatuz joan da, biztanleria langilearen artean ongi barrendu diren mezu ideologikoak finkatzeko, eta sistema, orduan zuen krisialdi larria medio, oso ahul zegoen une politikoan.

Aipamen berezia egin behar dugu, Euskal Herrian, PNVk eta ELAk, Langile Mugimenduaren barruan nahasmendua sor zedin, bete zuten laguntza-papera.

ELA, "esparru abertzale"ko sindikalismoan duen historia luzean oinarrituz eta antolaketa sendoa eta guzti, jarrera argi eta garbi eskuinkoietan (amarilismoa) erori ez ezik, langileen artean apolitikokeria mezua sartu du ere, Euskal Herrian, hain zuzen ere, are arriskutsuago eta larriagoa delarik.

Une hauetan, zera dugu: Zentral Sindikal sistemaren morroiak eta sistemak berak xurgatuak Administrazioaren beraren eranskin bailiren, guztiz iharduera burokratizatuarekin; eta beraz, ugazaberia sendotuak, erangingarri guztiak eskuetan dituztela, beren postulatu eta interesen alde, langilearen aurrerapen ideologikoaren galaga, alegia. Honela bada, negoziaketa kolektiboa alderdi ekonomiko hutsen tresna negoziatzailea ez beste izaten geratuz, norbanakokeriaren alde eginez eta, ondorioz, Langile Mugimendua atzeraldira bideratuz.

## 3.2. L.A.B. ETA NEGOZIAKETA KOLEKTIBOA

Ahaztu gabe ezen enplegu-ezabaketa prozesu etengabearen sarturik segitzen dugula, zeini Kapitalak garakeriazko antsiez ekiten bait dio, bizi garen Gizartearen balizko hobekuntzari buruz, ekonomia geldituan aberastasuna sortarazi nahiz, teknologia berria garatzearen bidez (errobotika, etab.) eta honetarako behar dituen mekanismoez (birregituraketak, plantilla-mugikortasuna, legegintza) hornituz.

Negoiazioa ikusi behar dugu, ez berez bera helburu balitz bezala, bai, alabaina, langileen erantzun gaitasuna handiagotu Langile Mugimenduak erdietsiriko lorpenak sendotu eta guzti honen bidez ugazaberiaren planak gero eta aurrerago joan daitezten ekiditea ahaldidetu digun bitarteko bat bezala.

Era berean, langileen kontzientzia politiko-soziala finkatu eta handitzeko bidetzat balio behar digu, gure kidego guztiaren eta orokorrean langileen indartze ideologikoari buruz, honek, aldi berean, negoziaketaren eduki osagarri eta globalizatzaile handiagodun mezua igortzea ahalbide diezagun, ihardunaldi-errebindikazio eta ekonomizista huts hutsak baino ez egitean jausi gabe.

### **3.3. HEMEN DATORREN GIZARTE-KONTZERTAZIOA. PSOE-UGAZABERIAREN ERASOALDIA**

PSOEren Politika Sozioekonomikoa, estatuko eta, batez ere, multinazionalen menpean dagoela, halako langileen aurkako neurri-piloa da, ezen zentral "Sozialistak berak ere haiek gaitzestera beharturik ikusten bait du bere burua, nahiz eta Erreforma prozesu guztian argi eta garbi erakutsi dituen "borondate ona" eta kolaborazionismoa.

Ildo honexetan dago CEOEk exijitzen duen eta PSOE kezartzeko prest eta era erabakirik duen Gizarte-Kontzertazioarekiko gaur egungo "atzera-aurrera".

UGT eta CCOO zentral erreformistek ez dirudite inolako aldaketarik gabeko halako taiugabekeria pilo "irensteko" prest. Beharrezko dute enbidotik, erdizka ez bada ere, buru tente irtetzea, beren aurpegi desakreditatua are gehiago ez zikintzearen. Badaiteke ezen Gobernu zentralaren erasokortasun langileen aurkakoaren aurrean zenbait erantzun-mobilizazio ikustea.

Gure ikuspuntutik, ezin diogu liskar honi ez ikusi egin. Hori bai, Gobernua nahiz UGT-CCOO-ELA sindikatuak desenmaskaratuz, hala berauen lan ezkorragatik iraganean, nola gaur egun langileen interesak defendatzeko orduan duten ahultasunagatik. Eta beti, gainera, geure gizarte eta nazio askapenerako proiektuan ezarririk helburua.

CEOEren asmoak Elkargo Autonomoak erabateko mesprezuz baztertzen dituen langileen aurkako neurri-multzoan biltzen dira. Bere indarra eta erizpidea ezar erazten dituen marko instituzional bakarra, zentrala delakoaren beste frogantza bat. Gainontzekoak edukinez hutsik daude eta eskumen-marko ahul eta ez-eraginkorrek.

Oraingo orain, CEOEren "eskaintzaren" oinarrizko tresnak PSOEren 2.000 programa eta langabeziako Liburu Zuria dira.

#### **3.3.1. KAPITALAREN HELBURUAK**

CEOerentzat, azken hiru urteetan izandako ekonomiaren joera hedakorra mantentzean eta joera hau (CEOEk berak aitortzen du ezen joera hedakor honek ezin gutxitu duela dagoen langabezia, biztanleria langilearen gehikuntzagatik, haren helburua, beraz, ez da ez soilik erabateko enplegua, ez eta langabezia gutxitzeko asmorik izatera ere ez da heltzen) egiturazko bihurtzean datza.

CEOE sutsu mintzaten da lehenagoko gizarte-hitzarmenen alde (AMI, ANE, AES) "elkartasunaren teoriar" funtsatuak (krisia denok ordaindu behar dugu) eta halaber antzeko eragiketa egiteko beharrez, 92ko demaren aurrean: Europear Merkatu Bakarrari arrakastaz ekin. Aholku ematen du gainera, ezen lortutako hitzarmenak epe luzerako izan behar dutela. Hau da, are kortsepetuago egin lan eta bizitza baldintzak. Proposaturiko ihardun-ildoak dira:

A) SOLDATA-MODERAZIOA. Soldata-hazkuntza ekoizkortasun-hazkuntza baino txikiago izan behar dela. Hau da, langile-hustirakuntza areagotu eta irabaz-tasa handitu.

B) OINARRIZKO TRESNA MONETA-POLITIKAK IZAN BEHAR DU. Beronen menpe egon beharko dute politika fiskala, aurrekontuena, politika soziala...

C) MENTS PUBLIKOA GUTXITU. Monetarismoaren ezaugarria. Defentsan eta beste atal batzuetako ikaragarritzko gastuen aurrean, gutxitu egingo da Ments Publikoa, behar sozialekiko arreta gutxituz.

D) FISKALITATEA BERREGITURATU INBERTSIOAREN ZERBITZURAKO IPINIZ. Hots, Zerga-bidearen berregituraketa hau enpresari-klasearen onuran izango da eta herri-mailak eta langelireriaren aurka.

E) GIZARTE-SEGURANTZAREN FINANTZIABIDEA ALDATU. Batez ere G.S.ra ugazaberiak egin beharreko ekarriak gutxituz, eta estatuaren mentsa gutxitu egin behar denez ere, Estatuak ez dirudi alde batetik prest dagoenik. Testuinguru honexetan geratzen da argi Pentsio-Fondoaren papera.

F) LAN-MERKATUA MALGUTU. Enpleguaren erregulazioazko espedienteen eta mugikortasun geografiko eta funtzionalaren gaineko araudia "modernotzearen" bidez, harik eta EEEko beste herrietan ohizko diren arauak "iritsi" arte. Guzti honek lan eta kontratazio baldintzen txarragotzea dakar.

Neurri-zerrendan daude Estatuaren gastu arruntak gutxitzea, lanbide-hezketa hobetzea, enpresa txiki eta ertainen alde egitea, etab.

### 3.3.2. KONKLUSIOA

1992ra arte langileek beste eraso bi jasango dituzte. Alde batetik, berregituraketaren burutzapena, datxekion lan-postu suntsitzearekin, eta bestetik, egin egingo den Kontzertazio ageriko nahiz ezkutukoaren larriak (eskuratze ahalbidea, lan-merkatuaren gogortzea, Welfare State delakoaren endakotzea, presio fiskala handiagotzea langileei, herri-mailei,...).

Guzti hau denetarikoa neurri koertitibo, intoxikatzaile eta errepresiboz lagundurik, nola baita sindikalismo erreformista, aseptiko, hezi eta desmobilizatzaileaz ere.

Hitzarmenik lortzen ez denean, hara zer dioten CEOek: "kontzertaziorik eza, lortzeko arrazoizko diren ahalegin guztiak egindakoan, ez da aitzakia ez xuribide izan behar Gobernuaren beharrezko ekintzak egin ez daitezten". Hara baina, Felipe Gonzalezek bere azkenotariko telebista-hitzaldi batetan esandakoaren berdin berdina da: "kontzertaziorik ez badago Nazioko Gobernuak egoki deritzekeen neurriak hartuko ditu". Guzti honez geure eskuhartze-ildoak indartzera eraman behar gaitu, eta halaber Gobernuaren politika sozial-ekonomikoarekiko aurkamendua eta, batez ere, borroka ideologikoa hedatzera, langileen aurka erabiliko den guztitarako intoxikazioari aurre egiteko.

### 3.4. ERREIBINDIKAZIO-OINARRIAK

Gure ustez negoziaketa kolektiboa jarraitu behar zaien ARDATZAK:

- a) **Iraupena:** urte beteko jadanekotasuna, zeren, gure eritziz, ekoizketa sektore eta tokietako etengabeko birregituraketa-prozesuan sarturik dauden langileen interesen araura bait dator.
- b) **Eduki erreibindikatzaila:** ekin egin behar dugu ekoizketa-erritmoak areagotzearen, plantilen malgutasunaren, polibalentzien eta ihardun edo geografi mugikortasunaren aurka, azken hauek fase honetan funtsezko garrantzia hartzen dutelarik eta zuzen zuzenean loturik bait daude epe erdirako eragiketekin, zeintzuen azken helburua plantilak gutxitzetik pasatzea den.
- c) **Alogerak:** Kontutan izanik IRPF eta beste zergen zama gero eta astunagoa eta gure zalantzak estatistikaren fidagarritasunean IPC delakoaren gaian eta oinarritzat langileen bizi-maila hobetzearen filosofia hartuz, hots, gure bizi-kalitatearen maila altxatu, eta guzti hau langileek sortarazten dugun plusbalia gehikuntza itzelean funtsaturik gainera, 1988ko IPCren ginetik puntu 2 erreibindikatu behar dugu, eta Ekaineko errebisioan + 1 aseguratatu gure soldata-oinarria, orokorrean lerrobiderantz joko duen ordainketa-eredua bultzatuz.
- d) **Ihardunaldia:** Erreferentziatzen astero 38 orduko presentziadun ihardunaldia markatu behar dugu, eta salbuespenak salbuespen LABek ez luke urteroko ihardunaldi-presentzia 1.800 orduetik behera ezartzen ez duen inolako Hitzarmenik izenpetu behar.
- e) **Ordezkapena eta Kontrol Sindikala:** Bultzatzen dugu Enpresa-Batzordea lantegiko batzarrearen antolaera -esparruan txertaturik-, joera sindikal ezberdinen bilgunetzat harturik, bakoitzaren lantokiaren marko zehatz eta espezifikoa alegia. Halaber garatuko dute ere kontrol ekonomiko-finanziaria, proiektu teknikoena eta gutxienezko segurtasun-arauak betetzen ez duten ekoizte-sistemaren aldaketena.

- f) **Pentsio-Fondoak:** Biztanleria guztiarentzako sanitate urgazpena den gizarte-lorpena, berriro ere langileriaren ekonomiaren pentsutan ipiniko da. Aldi berean, INSS delakoan, hots, pentsioetan, "ekonomiak" egiteko estalgarritzat erabili ahal izanen delarik, eta G.S.ren pribatizaziorantz joaten segitu. Gizarte Segurantzaren "porrot"aren aurrean, Gobernuak, Banka guztiaren laguntzaz (eta datorkion pagotxaren aurrean adurra dariola), iaz bertan eratu zituen "Fondos de Pensiones" delakoa eta erditu berri egin da Fondo horiexen Arautegiaz, zeintzu, azken batez, Estatuak ezin mantendu dituela klase pasiboak esatera datozkigun eta pentsatzen hasi behar dugula G.S.k ezin estali duen zatia geure sakeletik oradaintzean.

Langileak ohartarazi nahi ditugu ezen aurtendanik konbenio kolektiboetan ugazaberia su eta salda sartuko delako gai honetan, eta gure jarrerak ezin du izan lantegietatik fondo hauen alde egiteari ezezko borobila ematea baino.

### 3.5. NEGOZIAKETA-MARKOAK

LABek negoziaketa-markotzat Hego Euskal Herriaren esparrua defendatuko du. Lurralde-esparruko konbenioak sindikatuak defendatuko ditu, negoziaketa-gaitasun gutxiagodun sektoreetako lan-baldintzak defendatzeko elementuak diren aldetik.

Euskal Herriaren esparruaz gaindiko hitzarmenei dagokienean, bereizi behar lirateke alde batetik Estatu guztiko enpresa bezala agertzen direnak (Renfe, Erosetxe Haundiak, etab.), zeintzuen kasuan guk ordezkapenik edukitzearen balizkoan, LABek negoziaketa-marko horretan egon beharko lukeen, beti ere Euskal Herriaren markoa aldarrikatu eta erreibindikatzuz, eta bestetik sektoreak izendatzen ditugunak (Banka, Papela, etab.) zeintzuetan ondoko helburu hauen arabera egon litekeen:

- a) Lehentasuna duen zeregina konbenio horiek negoziaketa-markotzat Euskal Herria izan dezaten lortzeko borroka da.
- b) Sektore bakoitzetik ahalbait eta makroekonomi-informaziorik gehien lortzea.
- c) LAB negoziaketa horretan egoteak ez duela Euskal Herriko negoziaketa-markorik, hala enpresa nola Lurraldekoa, baldintzatzen bermatzea.
- d) Gure ordezkariengan inolako desgaste sindikalik ez izatea ahalbaidetu, salbu eta beraientzat litekeen negoziaketa-marko bakarra izatea.
- e) Kasu guztietan, LABek lehentasuna eman behar dio beti sindikatu bezala gehien kohesionatzen gaituen eta Euskal Herriko langileen erreibindikazioen aldeko borrokan aurrerapena izan daitekeen negoziaketa-markoari.